AGUS HERNAN

"Hizkuntza planik gabe, etorkizun zaila izango dute Iparraldeko euskal irratiek" **/9**

KIROLA: ZUHAITZ EZPELETA, GERTU AIZKORRIKO MARATOIRAKO /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005.05.27 • V. urtea • 201. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

ARRASATE

Bigarren eskuko bizikleten azoka egingo dute /7

Goienka2a

Breakdance egiten duen talde bat dago Debagoienean

BARRUAN, GEHIGARRI BEREZIA: ETXEBIZITZEN GAINEKO 12 ORRIALDE

ASTEKO GAIA: TABAKOAREN AURKAKO LEGEA

Lantokietan erretzea, debekatuta

Espainiako Gobernuak onartu berri du Tabakoaren Aurkako Legearen aurreproiektua. 2006an jarriko dute indarrean, eta bere ondorio nabarmenena da lantokietan zeharo debekatuta egongo dela erretzea; baita hedadura jakin batetik gorako taberna eta jatetxeetan ere. Legeak eragingo die ez bakarrik erretzaile aktibo eta pasiboei, baita ostalaritza sektoreari, estankoei eta edozein motatako lantoki eta enpresei ere.

Legeak gaur egungo egoerarekiko zorroztasun askoz handiagoa ekarriko du. Horregatik, debagoiendarrak informatzen eta gaia eztabaidatzen hasiak dira, denetariko iritziekin. **/2-3**

Udal plataformek salatu dute baztertuta daudela

Udal hauteskundeak egin zirenetik bi urte igaro dira, eta Debagoieneko herri plataformek "apartheid politikoa" salatu dute. Horretarako, kontzentrazioak egin, udaletan mozioak aurkeztu eta zapaturako manifestaziorako dei egin dute. Bihar, zapatua, eskualdeko manifestazioa egingo dute Oñatin, 19:00etan. **/4**

ENEKO AZKARATE

Etxeak birgaitzen lagundu du Suradesak

Suradesa Debagoieneko Hirigintza Errehabilitazio Erakundea da, eta etxean, komunitatean edo auzoan lanak egiteko laguntza eskaintzen du. Udalei, gainera, errehabilitazio ikerketak egin dizkie eta hainbat hirigune historiko eta auzune historiko degradatu eraberritzen lagundu du. Iaz, debagoiendarren 1.948 kontsulta erantzun zituen, eta 9 milioi euroko lanak bideratu zituen erakunde horrek. 2004ko esku-hartzeak azaltzeko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean, Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan. Argazkian ikus ditzakezue, Suradesak lagunduta, Bergarako Matxiategi kalean ipintzen diharduten igogailuak. **/4**

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

OÑATI

Kultura, artea eta natura 2005eko udako programan

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak Oñati 2005 Udara proiektua aurkeztu du. Turismo Bulegoarekin eta Natur Eskolarekin batera landu dute udari begirako programa. Herriko ondasun kultural eta artistikoak ahaztu gabe, natur-guneko ibilbideen eskaintza zabaldu dute aurten. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a

Erre, kalean eta tabernetan

■ Debagoieneko lantokietan ezingo da erre 2006tik aurrera, ezta gune berezietan ere

■ Salmentan, publizitatean… debekua edo mugak ipintzen ditu Espainiako lege berriak

nolako ikasketak
halako lana

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.
GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.
BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

LEIRE KORTABARRIA

Nazioarteko Tabakorik Gabeko Egunak, hilaren 31n, berriak dakartza Debagoieneko erretzaileendako. Izan ere, Debagoieneko lantokietan ezingo da erre 2006. urte hasieratik. Erretzea debekatuta edo mugatuta egongo da ia leku guztietan. Tabakoaren salmenta estankoetara eta makinetara mugatuko da. Adin txikikoek ezingo dute tabakorik erosi edo saldu. Hori eta gehiago jasotzen du Espainiako Kongresuak joan den astean onartu duen Tabakoaren Legearen Aurreproiektuak.

Estatuan, erretzaile tasak Europako altuenetarikoak dira: 15 urtetik gorakoen %34,4 (Alemanian edo Italian, adibidez, %27 da). Egunero zazpi lagun hiltzen dira EAEn tabakismoarekin zerikusia duten gaitzengatik; urtean, 2.500 bat. Legearen beste helburu bat da erretzaileei mendekotasun hori uzten laguntzea; Osakidetzak dio EAEn urtero 5.600 lagunek lortzen dutela. Hortaz, Espainiako Gobernuaren esanetan, helburua da "erretzaile pasiboak babestea" eta "tabakoa uzteko erraztasunak ematea".

"ASTAKERIA DA"

Madrilek dio testua erkidegoekin eta gizarte, politika, osasun… arloekin adostu duela. Baina adostasun hori ez da hain borobila; izan ere, tabakoaren sektoreko enpresek, estankoek, zenbait sindikatuk… protesta egin dute, lanpostu eta diru galerak aipatuz. Horrez gain, erretzaileen eta erretzaile ez direnen iritziak daude. Eztabaida hori bera Debagoienean ere gertatzen ari da. Batetik, ikusten da Debagoieneko onuradun eta kaltetu asko informazioa eskuratzeaz arduratu direla dagoeneko. Legearen gainean zer esanik badute.

Erretzaileak eurak, aktiboak eta pasiboak, dira lehen afektatuak. Horien artean, denetariko iritziak daude. Gerardo Markuleta idazle oñatiarra erretzailea da, eta honakoa dio: "Lantokietan derrigorrez egon behar dugunez, hor guztiz debekatzea astakeria iruditzen zait, neurri antidemokratikoa. Mendekotasuna duen bati ezin zaio eskatu hori uzteko, gobernu batek hala nahi duenean". Horrez gain, Markuletak ez du uste eraginkorra izango denik: "Beteko ez den legea da eta eurek badakite hori".

Erretzaile ez diren batzuek bestela uste dute: "Jende gehiagok hartuko du erretzeari uzteko asmoa. Niri keak traba handia egiten dit, eta legea oso ondo ikusten dut, batik bat ikusita zenbat jende gaixotzen den tabakoaren erruz", dio Tzeitel Martinek. Hura erretzaile ohia da.

Arantzazuk, erretzeari utzi zion beste debagoiendar batek, hauxe dio: "Neuk erabakiko dut noiz erre: ez dut zertan beste inoren keak hartu. Jatetxeetan mugatzea bereziki ondo ikusten dut, baita igogailu, ospitale eta

Euskal Herrian

Madrilgo legea Estatu osoan aplikatuko da, Hego Euskal Herri osoan, hortaz. Bitartean, Nafarroan tabakoaren inguruko lege forala dago indarrean. Estatu legea lege foralaren antzekoa da: esaterako, isunak berberak dira (3.000-600.000 euro bitartekoak), eta Nafarroan, saldu edo erosteko gutxieneko adina 18 urte da. Desberdintasun nagusia da lege foralak baimentzen duela edozein taberna edo jatetxetan erretzea; Madrilen legea zorrotzagoa da horretan.

Iparraldeari dagokionez, tabakismoari aurre egiteko neurri nagusia prezioen igoera izan da: Espainiako Estatuko prezioak bikoiztu egiten dira han. Indarrean dago lehendik ere tabakoaren edozein motatako publizitatea egitea. Lantokietan ezin da erre, norberaren bulegoan ez bada.

IÑAKI ITURBE

Datorren urtetik aurrera, 100 m² baino gehiagoko taberna eta jatetxeek erretzaileendako guneak ipini beharko dituzte edo erretzea debekatu egin beharko dute.

halako lekuetan ere. Hala ere, ondo iruditzen zait taberna txikietan baimentzea".

ERAGIN HANDIENA, OSTALARITZAN

Gureko ostalariak legearen jakinean daude, eta prestatzen hasi dira batzuk. Bergarako Lasa jatetxeko Juani Angulok dio: "Neurriak hartzen ari gara legea datorrenerako, baina arazoa da denondako. Ezkontza-bazkari bat badugu, zer egin behar dugu? Legea zorrotzegi egin dute".

Jai-areto eta taberna handiek ondo girotutako lekuak bereiztu beharko dituzte erretzaileendako, edo erretzea guztiz debekatu. Jam aretoko Fernando Etxabarrik ez du arazorik ikusten: "Europan, jendea ondo moldatu da, eta hemen ere hala izango da. Kontzertuetan hori kontrolatzea zailagoa izango da, baina topatuko dugu konponbideren bat", diosku. Espaloia antzokiko arduradunek diote, ordea, "jendea bereiztea ez dela oso zentzuzkoa", eta "ohiturak aldatzea oso zaila" izango dela.

Debagoieneko herritarrek, ostalariek, estanko jabeek… denetariko iritziak dituzte

Ospitaleak erretzeari uzteko ikastaro irekia egingo du ekainaren 1ean

Erretzaile ez diren zerbitzariek ondo ikusten dute arau berria; batez ere 100 m2-tik gorakoetan lan egiten dutenek sumatu eta eskertuko dute legearen eragina.

Taberna txikien jabeek, aukeran, erretzea baimenduko dute Debagoienean; taberna horiek –eta aire zabaleko guneak, jakina– izango dira laster erre ahal izango diren leku bakarrak.

DEBA GARAIKO OSPITALEA

Erretzeari uzteko ikastaroa izango da ekainaren 1ean, denondako

Deba Garaiko Ospitalean zeharo debekatuta egongo da erretzea 2006az geroztik (gaur egun, zenbait gunetan erretzaileendako lekuak daude). Baina Ospitaleak aurre hartu nahi dio legeari eta urriaren 1etik aurrera izango da kerik gabeko lekua. Erretzeari uzteko ikastaroak izan dituzte langileek, zuzendaritzak diruz lagunduta, eta hilaren 1ean, eguaztena, sei orduko doako ikastaroa emango dute joan nahi duen ororendako. 08:00etan hasiko da.

KRITIKA ASKO

Sindikatuek, estankoek... kalte handiak aurreikusten dituzte

Kritika asko jaso ditu Espainiako Osasun Ministerioak: Industria Ministeriotik, CEOE patronaletik… CCOO sindikatuak eskatu du lantokietan erretzaileendako guneak ipintzea.

Estankoek ere protesta egin dute. Izan ere, zigarro solteak edo 20tik beherako paketeak ezingo dituzte saldu, eta tabakoaren aurkako kartelak ipini beharko dituzte. Ibarreko zenbait estankok diote legeak kalte egingo dietela eta ez dietela informaziorik helarazi.

EUROPAN

Europan, herri gehienek tabakoaren aurkako lege zorrotzak dituzte

Espainiak nahi du Europako beste herriekin parekatu; izan ere, Europako Batasuneko herri ia gehienek arau zorrotzagoak dituzte. Esaterako, Espainiak du tabako publizitatearen gaineko legerik eskuzabalenetariko bat.

Araudi gogorrena Irlandak eta Norvegiak dute. Irlandan, leku publikoetan erretzea zeharo debekatu dute (lantoki, pub eta jatetxeak barne), eta Norvegiak haren urratsak jarraitu ditu. Baita Eskoziak ere.

Hau dio legeak

ADINA
16 urtetik 18ra igotzen da tabakoa saldu edo erosteko adin legala.

SALMENTA
Estankoetan eta makinetan bakarrik saldu ahal izango da.

DEBEKUA
Guztiz debekatuko dute honako lekuetan erretzea: lantokian, aire zabalean ez bada; osasun, hezkuntza, kultura eta kirol zentroetan, saltokietan, adin txikikoendako guneetan, publikora begira lan egiten dutenek, igogailuetan, kutxazainetan, garraio publikoetan...

NON ERRE DAITEKEEN
100 m2-ra arteko taberna eta jatetxeek baimen dezakete, hala iragarrita sarreran eta publizitatean. Handiagoek debekatu edo fisikoki banandutako gune aireztatuak ipini beharko dituzte erretzaileendako. Halako guneak egongo dira kartzela, aireportu eta tren, autobus eta itsas portuetan.

PUBLIZITATERIK EZ
Hedabide guztietan debekatuko da tabakoaren publizitatea, eta markak laguntzaile moduan agertzea. Neurri hori legea BOEn agertzen denean jarriko da indarrean.

ISUN GOGORRAK
Lege-urratzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera izango dira. Lege-urraketak arinak, grabeak eta oso grabeak izan daitezke. Behar ez den tokian erretzeagatik 30 euroko isunak jaso daitezke.

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA
EPEA
ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak
Etengabeko formazio eredu berria
AKADEMIA
BASTIDA
• Kalitatea
• Ingurugiroa
• Laneko arriskuen prebentzioa
• Informatika
• Disenua
• Gestioa
• Hizkuntzak
• Giza baliabideak
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es
Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak

IKER BARANDIARAN

Suradesako Miren Argi Zeziaga abokatua, Agustin Ugarte presidentea eta Luis Laskurain gerentea martitzenean.

Suradesak 1.200 etxebizitzatan egin beharreko lanak bideratu zituen iaz

Lan horiek, guztira, 9 milioi euroko kostua izan zuten gure ibarrean

IKER BARANDIARAN

Suradesak, Debagoieneko Hirigintza Errehabilitazio Erakundeak, 2004an egindako interbentzioen balantzea egin zuen. Iaz debagoiendarren 1.948 kontsulta erantzun zituen, eta 9 milioi euroko lanak bideratu zituen.

Suradesa Debagoieneko Hirigintza Errehabilitazio Erakundea da, eta etxean, komunitatean edo auzoan lanak egiteko laguntza eskaintzen du. Udalei, gainera, errehabilitazio ikerketak egin dizkie eta hainbat hirigune historiko eta auzune historiko degradatu eraberritzen lagundu du.

2004ko esku-hartzeak azaltzeko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean, Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan. Suradesako hiru lagunek eman zuten: Luis Laskurain gerenteak, Agustin Ugarte presidenteak eta Miren Argi Zeziaga abokatuak.

Agustin Ugarte presidenteak azaldu zuen herritarrek lanen bat egin gura dutenean, hasi baino lehenago eurengana jotzeko aukera dutela. Suradesak administrazioarekin egin beharreko tramiteak erraztuko dizkie, baimenak zein dirulaguntzak eskatzeko orduan. Horrez gain, edozein arazoren aurrean, zuzenbideko gaietan laguntza eskainiko die interesatuei.

DIRULAGUNTZEN BIDEZ, DIRUA BUELTAN

Ugarteren esanetan, Suradesak Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza asko lortu ditu debagoiendarrendako. Iaz, 535.768 euro lortu zituen. Are gehiago, euren esanetan, "azken bost urteotan, ibarreko biztanleek Suradesari esker 4.178.590 euro aurreztu dituzte". Horrekin lotuta, azpimarratu zuten Suradesari esker Eusko Jaurlaritzak interbentzio horiek errehabilitazio lan moduan izendatzen dituela. Hortaz, herritarrek gastatutako kopuruaren %15 desgrabatzeko aukera dute Ogasunean.

Suradesari laguntza eskatzeko, ezinbestekoa da lanak hasi barik egotea

UDALETXEETAN ETA MANKOMUNITATEAN

Miren Argi Zeziaga abokatuak azpimarratu zuen lanen bat egin gura duten debagoiendarrek Mankomunitateko egoitzara edo ibarreko edozein udaletxetara jo dezaketela Suradesako zerbitzuak eskatzera. Leintz Gatzagan ez dute bulegorik, baina han enkargua utzi ahal izango dute.

Zeziagak azaldu zuen etxea margotzeko, komuna berritzeko, ataria edo fatxada aldatzeko eta igogailua ipintzeko lanak, besteak beste, bideratzen dituztela.

Laskurainen ustez, "hirigune historikoak kontserbatzeaz gain, herritar guztiei erosotasuna eta bizi-kalitatea lortzen lagundu behar diegu".

"Apartheid politikoa" salatu dute plataformek udaletan

Eskualdeko manifestazioa egingo dute bihar Oñatin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udal hauteskundeetatik bi urte igaro dira, eta Debagoieneko herri plataformek "apartheid politikoa" salatu dute. Horretarako, kontzentrazioak egin, udaletan mozioak aurkeztu eta zapaturako manifestaziorako dei egin dute.

Maiatzaren 25ean bi urte bete ziren azken udal hauteskundeak izan zirenetik. Herri plataformek salatu dute bi urteotan ez dela herritarren hitza bete: "Nahiz eta hauteskundeetan ibarrean 20 hautetsi eskuratu, ez da debagoiendarren hitza eta borondatea errespetatu", esan zuten.

"Apartheid politikoa" salatzeko kontzentrazioak egin dituzte ibarreko hainbat herritan asteon. Maiatzaren 25ean bertan elkartu ziren Elgetan, Antzuolan, Aretxabaletan, Arrasaten, eta Eskoriatzan. Oñatin maiatzaren 26an egin zuten kale agerraldia eta Bergaran, berriz, astelehenean, maiatzaren 30ean, izango da, 19:30ean, plazan.

Bestalde, hurrengo osoko bilkuretan mozioak aurkeztuko dituzte udal guztietan.

MANIFESTAZIOA

Honetaz gain, bihar, zapatua, eskualdeko manifestazioa egingo dute Oñatin, plataformetako kideek deituta. 19:00etan hasiko da, plazan, eta "eskubide zibil eta politikoak eta debagoiendarren hitza eta borondatea errespetatzea" eskatuko dute.

UBANE MADERA

Konzentrazioak egin dituzte ibarreko hainbat herritan "apartheid politikoa" salatzeko.

ARANZADI
IKASTOLA

T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2005eko ekainaren 22an egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko San Martín Plazako UNEDeko Areto Nagusian (Plazako atetik sartuz).
Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2004/05 ikasturteko memoria
4. 2005/06 ikasturteko egitasmoa
5. 2004 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Soberakinen banaketa
7. 2005 urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Artezkaritza Kontseilurako kide berriak hautatzea
9. Galde-erantzunak

Bergaran, 2005eko maiatzaren 27an

Lehendakaria
Elena Laka Muñoz

Udako existentzietan likidazio osoa!!!
Erretiroa hartzen dugulako

TXIKIAK
=oinetakoak=

Otalora
lizentziaduna 21
Tel.: 943 79 44 70
ARRASATE

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Euskara elkarteen nondik norakoak aztertu zituzten mahai inguruan

Jardunen urteurreneko ekitaldiek asteburuan izango dute jarraipena

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jardun elkartearen 15. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Eguaztenean, Julen Arexolaleiba eta Iñaki Arrutirekin mahai ingurua izan zen, eta euskara elkarteen egoera izan zuten, besteak beste, berbetarako gai.



I.A.

Iñaki Arruti eta Julen Arexolaleiba, eguazteneko mahainguruan.

Lasarteko Udaleko euskara teknikari eta Ttakun elkarteko kide da Iñaki Arruti; Julen Arexolaleiba HUHEZIko irakasle da, baita AED elkarteko kide ere. Euskalgintzan duten eskarmentua ikusita, eurak izan ziren mahai inguruaren gidariak.

Euskara elkarteen alderdi onak eta une ahulak zein diren aztertu zuten; baita hemendik aurrera indarrak non ipini behar diren eta elkarteak zein norabide hartu behar lukeen ere.

AKUILU LANAREN GARRANTZIA

Iñaki Arrutiren esanetan, "gaur egun, euskara elkarteak euren garairik onenean baino okerrago daude; eragina txikiagoa da, eta horren arrazoi bat da gizarteko balioak aldatu egin direla".

Motibazioaz, euskararen ezagutzaz eta erabileraz hainbat hitz egin zituen. "Euskara elkarteak sortu zirenean euskararen ezagutza eskolek eta euskaltegiek ematen zuten; beraz, motibazioan eta erabileran eragin behar zen. Motibazioari begira baino gehiago, erabilerari begira antolatu izan dira, ordea, elkarteen programazioak. Ez dugu asmatu hizkuntzaren inguruko diskurtsoa zabaltzen. Ondo transmititzea da kontua, eta horretarako harreman sare informala sortu behar da. Bestalde, akuilu lana egin behar dute elkarteek".

Julen Arexolaleibak bat egin zuen Arrutirekin elkarteek akuilu lana egin behar dutela aipatzerakoan: "Euskara elkarteetan askotan jo dugu zerbitzuak eskaintzera, eta bide horretatik jarraitu behar dugu, baina horretara bakarrik mugatu gabe. Arriskua dago urtero egiten diren ekintza horien dinamikan erortzeko. Beraz, gure lana da beste batzuk egingo ez luketen hori egitea. Ahalik eta jende gehienarengana iritsi behar dugu".

> *"Euskararen gaineko diskurtsoa hedatzeko harreman sare informala behar da"*
> IÑAKI ARRUTI

> *"Zerbitzuak eskaintzera ezin gara mugatu euskara elkarteak"*
> JULEN AREXOLALEIBA

EKITALDI GEHIAGO

Jardunen urteurrenaren baitan izango da ekitaldirik asteburuan ere. Gaur, 19:00etan, Zabalotegi aretoan, urte amaierako jaialdia egongo da. Han trikitixa eta bertso eskolakoek hartuko dute parte, besteak beste.

Zapatuan, berriz, mintegia egingo dute, 10:00etan, kultura etxean. Urteotan Jarduneko zuzendaritzan ibilitako kideek eta gazte taldeko hainbat lagunek hartuko dute parte, 20 lagun inguruk. Elkartearen egoeraren diagnostikoa egin eta hurrengo urteetarako helburuak finkatuko dituzte, mahai inguruan esandakoak ere kontuan hartuz. Gauean kontzertua izango da, gaztetxean, 23:00etan, Azkaiter Pelox, Matxura eta Kerobiaren eskutik.

Lan segurtasuna aldarrikatu dute sindikatuek Bergaran

Manifestazioa egin dute, ELA, ESK eta EILASek deituta

GOIENKARIA

Manifestazioa egin zuten atzo, eguena, Bergaran, lan segurtasuna aldarrikatzeko, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deituta. Lan eskubidea, osasuna eta segurtasuna aldarrikatu zuten sindikatuek, "Debagoienean lan egiten dugun langileon egoera jasanezina delako".

Hego Euskal Herrian 1.568 lan istripu larri izan dira 2003tik hona, eta, ondorioz, 277 langile hil dira, sindikatuek esan dutenez. Bestalde, bereziki larria da egoera eraikuntza sektorean, "hamar lan istriputatik bederatzi alor horretan gertatzen delako". Hori guztia, eta batez ere, orain dela hilabete Algodonera zaharreko orubeetan lanean ziharduela hil zen langilearen heriotza salatzeko antolatu zuten atzoko manifestazioa. LAB deialdi horretatik kanpo geratu zen, "elkarretaratzeak edo manifestazioak baino haratago, jauzi kualitatiboa egin eta beste ekintza batzuk egitea proposatu dugulako, ordubeteko lanuztea, esaterako".

DEBAGOIENEAN LABUR

Eskualdeko Atzegi elkarteak urteroko jaia ospatuko du zapatuan Antzuolan

Debagoieneko Atzegi elkarteak Antzuolan ospatuko du jaia, bihar, zapatua. 12:30ean ekitaldi ofiziala izango da udaletxean. Alkatea eta Atzegiko arduradunak izango dira bertan. Ordu bietan, berriz, herri bazkaria egingo dute pilotalekuan eta bazkalostean opariak banatuko dituzte; dantzaldia ere egongo da. 170 bat lagun elkartzea espero dute. Seigarren urtea da ibarrean Atzegi eguna ospatzen dutena. Adimen urritasuna duten familia eta lagunak batzen dituen elkartea da Atzegi.

Zortzi kilo tona janari banatu ditu Gurutze Gorriak premia larria dutenen artean

Debagoienean premia larria duten familiendako 8.883 kilo janari banatu ditu Gurutze Gorriak. Ibarreko udalen laguntzarekin antolatutako kanpainaren ondorioz, Debagoieneko 127 familia jaso dituzte janariok: arroza, gailetak, esnea, pasta, gazta, natilak... Hau da, oinarrizko jakiak. Gurutze Gorriko 12 boluntariok jardun dute herriz herri janariak banatzen.

Familia euskaldunekin bizitzen euskara ikasi nahi dutenek aukera dute udan

Euskara ikasi, hobetu edo gure euskalkia ezagutu nahi dutenendako aukera eskaintzen die Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Egonaldiak Familia Euskaldunetan* egitasmoaren bidez. Baldintzak dira 18 urtetik gorakoa izatea eta euskalduntze programazioko 8. urratsa edo baliokidea gaindituta izatea. Izena emateko: 943 47 44 47.

EZETZ LEPOA JARRI!
Komedia antzezlana

Ekainaren 4an, zapatuan
Gaueko 10:30ean
Aretxabaletako Kirol Etxean

Sarrerak
- Aurrez:
  kultura etxean,
  kirol etxean,
  Artano tabernan,
  Arlutz tabernan
  10 euro
- Leihatilan:
  12 euro

Aretxabaletako Udala

Vitoria-Gasteiz... lorez lore

LORE FESTA HIRIAREN ERDIALDEAN

ZAPATUAN MAIATZAREN 28AN

Gasteizko merkataritza zabalguneak eta Gasteizko Udalak loreen festara ongietorria egiten dizuete eta ondorengo ekintzak proposatzen dizkizuete:

- Performance: Loreen unibertsoa. Body Art-Dantza eta perkusioa. 13:30ean eta 19:00etan katedral berriko Krokodilo eta Errinozeroan.
- Antzinako ibilgailuen erakusketa – Araba Classic Club – Alaba Jeneralaren kalea (Dato eta San Antonio artean)
- Haurrentzako tailerrak. Dato kalea (Merkataritza Ganbera parean)
- Erakusketak – Gometxa mintegien erakusketa – salmenta
  Posta kalea – Foruen plaza eta Babesgabeen Andre Mariaren plaza
- Aire zabaleko pintura lehiaketa

Antolatzaileak

gasteizon ensanche

Vitoria-Gasteizko Udala · Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Babesleak

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Industria, Merkataritza eta Turismo Saila · Departamento de Industria, Comercio y Turismo

Arabako Foru Aldundia · Diputación Foral de Alava

Laguntzaileak

Congresos y Turismo Biltzar eta Turismoa VITORIA-GASTEIZ

EL CORREO

ANTZUOLA

Gorpuzti jaiak ospatuko dituzte asteburuan Ondarre auzoan

Urteotan bezala, Gorpuzti jaiak ospatzeko jai egitaraua antolatu dute Ondarreko auzotarrek. Bihar, zapatua, hasiko dituzte jaiak; 12:00etan ginkana, 17:00etan umeendako jolasak, 17:30ean krosa eta 18:00etan Zirika Zirkus taldearen emanaldia izango dugu. 20:30ean auzo afaria egingo dute, eta 22:00etan erromeria. Gauerdian, azkenik, maleta lasterketa egingo dute.

Domekan, ekitaldi aipagarriena da zubi berriaren inaugurazioa, 13:15ean. 12:30ean prozesioa egingo dute. /A.I.

ARETXABALETA

Aste Berdea antolatu du Udalak martitzenetik domekara bitartean

Udalak, Ihobek lagunduta, Aste Berdea antolatu du, eta hainbat ekintza egingo dituzte. Maiatzaren 31n, martitzena, EHUko irakasle Iñaki Antiguedad etorriko da jasangarritasun edo iraunkortasunaren gainean berba egitera, eta ekainaren 1ean Tomas Larrañagak nekazaritza ekologikoa izango du berbagai. Udaletxean izango dira bi berbaldiak, 19:00etan. Bestalde, ikastetxeetako gazteek irteera egingo dute Iturriondo parkera eguenean eta umeek birziklatzearen gaineko jolasak egingo dituzte egubakoitzean. /M.A.

KONTZEJUPETIK

OÑATI

Natura, kultura eta artea 2005eko udako programan

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak Oñati 2005 Udara proiektua aurkeztu du. Turismo Bulegoarekin eta Natur Eskolarekin batera landu dute udara begirako programa. Natur guneko ibilbideen eskaintzaren alde egin dute aurten ere eta zortzi ibilbide antolatu dituzte, horietako bat Degurixara egingo dute eta horixe da aurtengo natur eskaintzaren berrikuntza. Herriko ondasun kultural eta artistikoak ere ez dituzte ahaztu: Unibertsitatea zabalik egongo da egunero abuztuan eta asteburuetan uztailean eta informazio puntu bat jarriko dute bertan, gainera, joan den urtean bezala. Egunero bisita gidatuak egingo dituzte, 12:00etan. Ekaina eta iraila bitartean 6.500 lagun inguru joaten dira Turismo Bulegora eta beste 13.000 lagun Arantzazura. /JULEN IRIONDO

ARAMAIO

Txahal hermafrodita jaio da Aramaioko Iturri-Osten

Arra eta emea da, biak batera, Iturri-Osten jaio den txahala. Horrez gain, atzeko aldeko izter bat gainerakoak baino dezente lodiagoa du, eta hiru apatxekin. Haren jabe Andres Altunak esandakoaren arabera, albaitariak ikusi du txahala, eta ondo dagoela esan die. Halaber, gaineratu du txahala aurrera ateratzen eta sendotzen ahaleginduko direla, nahiz eta badakien malformazioekin jaiotzen diren animalia askok zailtasunak izaten dituztela. Kontuak kontu, *Andoni* izena ipini diote, eta gogoz zainduko dute. /U.M.

BERGARA

Abendurako amaitu nahi ditu Diputazioak Urteagako lanak

Dagoeneko hiru aste daramatzate Urteagako Eskusarte harrobian lanean. Eskusarten lerradurak izan ostean, Bergaratik Antzuolarako errepide zaharra, Urteagan, 2003ko azaroa ezkero itxita dago. Avaya eta Geofisa enpresek dihardute mendi-mazelari eusteko lanetan.

Trenbide-plataforma zaharrari eustea dute helburu aipatutako lanek eta horretarako plataformaren azpian horma ainguratua jarriko dute. Lehen fasearen aurrekontua 1,5 milioi euro da. Geofisako iturrien arabera, lan konplikatua da egin beharrekoa.

Bigarren fasean, berriz, mazelaren beste zatiari eusteko lanak egingo dira. Diputazioaren arabera, lan hori bereziki zaila da, lurraren egitura dela eta. Klimatologia ona ezinbestekoa izango dela aurreratu dute. Bigarren fasearen aurrekontua 2,5 miloi euro da eta lanak oraindik adjudikatzeke daude. Lanak urte bukaerarako amaitzea da asmoa.

KALTETUAK, HASERRE

Bestalde, Arregi arozteagiaren goialdean dagoen harrobian ere lerradurak gertatu dira. Ekialdeko saihesbidea egin zutenean, San Migelera joateko zegoen pista kendu egin zuten. Diputazioak beste pista bat egiteko lanei ekin zien, baina lerradurak gertatu dira azkenaldian. Bien bitartean, errepidea ixteagatik kaltetutako enpresa eta partikularrak haserre daude, egin beharreko lanek atzerapen nabarmena izan dutelako. /E.M.

Zertzelada

Eskusarten lerradurak izan ostean, Bergaratik Antzuolarako errepide zaharra, Urteagan, 2003ko azaroa ezkero itxita dago

ARRASATE

Bigarren eskuko bizikleten eta antzerako materialaren azoka

Bihar hasiko dira batzen Bir-Zikleta azokarako materiala. Bizikletak, laskoak, patinak, patineteak... Motor bako garraioarekin zerikusia duen edozein material batuko dute.

Bir-Zikleta azoka bihar zortzi izango da, ekainaren 4an, 11:00etatik 13:30era arte eta 17:00etatik 19:30era arte, Jokin Zaitegi plazan.

Materiala ekarri nahi duenak martitzenean eta eguenean ere egin ahal izango du: 11:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte, azoka txikian.

IAZ, ARRAKASTATSUA

Iaz antolatu zuen Udalak Bir-Zikleta lehenengo aldiz. Eta arrakasta handia izan zuen. /U.M

ARTXIBOA

Iaz. arrasatearrez gainera, inguruko asko etorri zen Bir-Zikleta azokara.

ESKORIATZA

Udalerrian egiten dituzten 100 elkarrizketetatik 33 euskaraz dira

Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera aztertu du. Jasotako emaitzen arabera, euskararen erabilera handituz doa, eta umeen presentziak eragin handia dauka. San Pedro auzoan batu dituzte emaitza txarrenak. Auzo horretan erabilera txikia izanda, aurreko urteekin alderatuz, erabilerak beherantz egin du.

Biztanleen %51 neurtu dute: 1.949 lagun. Umeen %47k erabiltzen dute; gazteen %39k; eta helduen %22k. Gazteek beherantz egin dute, eta beste guztiek gehiago erabiltzen dute. /I.B.

ELGETA

Lapurretak egin dituzte Izarreko eta Uberako obretan

Uberako eta Izarreko bihurguneetan obretan dihardute, eta lapurretak izan dira azkenaldian. Izarren obretako materiala lapurtu dute, eta ertzainek ikertzen dihardute lapurretaren nondik norakoak. Uberan, berriz, 18 taula lapurtu zituzten astelehenean. Ertzaintzak auto batean atzeman zituen taulak. Bestalde, zirkulazioa erregulatzeko obretan ipinitako semaforoek ere izan dituzte kalteak, kableak moztu baitizkiete. Eta horrek nahasmena sortu du zirkulazioan. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Herriko azpiegitura orokorrak jartzeko obren lehiaketa deialdia, zabalik

Eguaztenean argitaratu zuen GAOk, eta erreklamazioren bat jarri gura duenak datorren eguena, ekainak 2, baino lehenago egin beharko du hori. Lan horiek egin gura dituzten enpresek ekainaren 20ra arte izango dute proiektua aurkezteko, eta obrek 217.850 euroko aurrekontua izango dute.

HIRU HILABETE LANAK EGITEKO

Denbora epe horretan egin beharko dituzte gasa, ur hodiak, saneamenduko hodiak eta bestelakoak jartzeko lanak. /X.U.

Gutunak

Irakurritakoak

Aupa, Gorka! Orain bi asteko GOIENKARIAko zure eskutitza irakurtzeak benetan hunkitu ninduen, nahiz eta aurrez zure lagun batek idatziaren berri eman zidan. Barkatu baina ez ditut zure esker bereziak onartzen. Eskerrik asko, zuei. Eskerrik asko, euskal preso politikoen kolektibo osoari, zuen duintasun eta kemenagatik, nahiz eta etsaiaren hatzaparretan bahiturik egon, beti tinko, hori gainera, zuen senide eta lagunen aurkako heriotza zigorrarekin mehatxaturik izan, dispertsioaren peregrinazio hiltzailea. Animu! Gurea da garaipena!

Gauza gehiago ere irakurri ditut azken egunotan, Gorka, eta ez nuke nahi zuri kontatzeko aukera hori galdu. Bizi dugun garai hauetan, badira idazlan batzuk higiene mentalerako oso kaltegarriak direnak. Zure baimenarekin, pozoitsuenarekin hasiko naiz. "BAT" izenburua jarriko diot. Inoiz Ezker Abertzalearen aurka irakurri dudan testurik zikinena da, gorrotoz betea. Matildek, Arrasateko PSOEko zinegotziak, sinatuko luke, edota Jaime Mayor Orejak. Zure harridurarako ez dut testu hau Vocento taldearen (*El Diario Vaso, El Correo, ABC*...) komunikabideetan irakurri, *Argia*-ren 1992. zenbakian irakurri dut, eta Nekane San Migel arrasatearrarena da. Idatzi dituen astakerien inguruan idatziko nizuke, baina gaur ez dut egingo. Bi arrazoirengatik: lehena, "estado de derecho" honetan ez naizelako bera bezain aske, edo guztiz askea, sentitzen eta pentsatzen dudana argitaratzeko. Bigarrena, eta garrantzitsuena, nik ez dut espainiar epaile batekin politikaz eztabaidatuko, askoz ere gutxiago espainiar epaile gezurti batekin.

Arrasateko udaletxe ez-demokratikoaren (dimisioak orain!) propaganda instituzionalerako aldizkaria (GOIENKARIA, GOITB, Arrasate Irratia eta EITBrekin ez daukate nahikoa antza) ere irakurtzeko aukera izan dut. Bandalismoaren inguruko tesia egin du gure herriko Jauntxoak. Argazki eta guzti. Batean "Euskal Herria aitortu, errespetatu" ageri da margotuta. Argazkiaren oinarrian: "Bandalismoari aurre egingo dio Udalak" dio. Multzo berdinean sartzen gaitu, adibidez, ikastolako leihoak apurtu zituzten batzuekin, eta drogamenpekotasunaren ondorioz kalte psikiko larriak dituztenekin. Gurea bandalismo sistematikoa omen da, farolen aurka, eserlekuen aurka... "dudosamente revolucionario" omen da adibidez tortura salatzeko pintadak egitea, eta "sonia te ama" idaztea berdina da beretzat. Hala ere, torturaren aurkako mezuak egun bat irauten badu pozik, bigarrenak hamar urte pasako ditu eguzkiak jan arte. Beraien garbitasun politika garbitasun politikoan bihurtu dute. Balore falta omen dugu. Dugu diot, ez baitut inongo arazorik pintada politikoak egin ditudala aitortzeko, halaxe egin nuen Bergarako epaitegiko epaile espainiar baten aurrean, PNVren indar armatua den espainiar polizia autonomikoak ni jipoitu eta inkomunikatu ondoren. Espainiar demokrazia honetako komunikabideetan zentsurarik ez balego, ez genuke hainbeste dirurik xahutuko margotzeko poteak erosten. Ez genuke gure askatasuna eta integritate fisiko eta psikologikoa arriskuan jarriko eta herritar eta dendari askoren burukominak arinduko lirateke, baita geureak ere. Pablo Picasso margolari handienaren hitz batzuk gogora ekarri nahi nituzke: "Ez, margoa ez zen asmatu etxeak apaintzeko, gudarako tresna bat da, erasotzeko eta defendatzeko".

Lacunzaren manipulazio, desitxuraketa eta intoxikazioa. Zapaltzailearen etika. Biktimismoa eta iraina. Bera bai zela "dudosamente revolucionario" Arrasateko Eskola Politeknikora *Egin* egunkaria besapean zuela joaten zenean. Laster aldatu zuen *El diario Anti-vasco*-rengatik. Orain bi urte PNVren alkate bihurtu zen, Aznarren estrategia ilegalizatzaileaz baliatuz. Aznar jausi zen, Lacunza eroriko den bezala.

Bueno, Gorka, barruak hustu ditut (bazen garaia!), ahalik eta ondoen jarraitu eta muxu handi bat zuretzat eta zurekin batera dauden guztientzat. Ez eman buelta asko bizi garen mende honi, inkisidoreek jarraitzen dute, mila astakeria egingo dituzte, baina laster egunsenti berria dator, askatasun haizeek gure gorputzak besarkatuko dituzte, eta ilunabar aldeko akelarrean dantza zoroan elkartuko gara. Maitasuna eta Borroka! Justizian oinarrituriko bakea Euskal Herriarentzat eta munduko herri borrokalari guztientzat!

OHARRA: eskutitz hau argitaratu ondoren ez naiz inoiz EiTB irratietako iritzi emailea izango Nekane San Migel bezala. Akaso independentzia lortu ondoren...

JULEN MENDIZABAL
Arrasate

Gipuzkoako Foru Aldundia oker dabil

Apirilaren hondarrean Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen bat egin zuen *El Diario Vasco* egunkariarekin, blog lehiaketa bat antolatzeko. Ez zituen aintzat hartu ordura arte Gipuzkoan bertan blogintzan egindako ahalegin oparoak, eta *DV*-rekin ezkondu zen.

Nork bere ezkontideak hautatzen ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskubide osoa du berea aukeratzeko. Hautuak, ordea, sortu zituen protesta batzuk, adibidez: Blog&roll lehiaketa printzipioz gaztelania hutsez izan behar zelako; edo saritzea nahi zutelako blog onena, baina horretarako ezinbestekoa zelako blog hori *Diariovasco.com*-en egitea; edo, oro har, aitzindarien lana kontuan hartzen ez zelako.

Okerrena, baina, orain dator: Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo ofiziala hasi da hainbat informazio banatzen, eta hor aldatu egiten da euskal blogintzaren historia, *DV*-ri emateko ez daukan aitzindaritza. Eta hori ez diogu onartuko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu du *E-gobernua eta hiritarren parte-hartzea*, jardunaldi batzuk, non gonbidatu dituen Europa Press-eko ordezkari bat, eta beste bat *DV*-koa, teknologia berriez hitz egiteko. Eta *DV*-ren ordezkaria aurkezterakoan, hauxe dio: "*Diariovasco.com* fue el primer medio digital en incorporar foros de discusión sin pre-moderación, y ha sido también el primero en poner a disposición de sus usuarios un servicio de blogs".

Blogei dagokienez, hori ez da egia. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta *DV*-k badakite Euskal Herrian lehen bloga, *Sustatu.com*, 2001ean kaleratu zela, Code&Syntax (Eibar) eta Goiena (Debagoiena) enpresek sortua. Lehen blog zerbitzua *Eibar.org* erakundeak sortu zuela 2004ko uztailean. *Goiena.net*-ek 2005eko otsailaren 22an aurkeztu zuela bere blog komunitatea Koldo Mitxelena kultura gunean, Donostian. Eta gero etorri zela *DV* bere blog zerbitzuekin. Baina..., hor egon liteke aitortu gabeko koska Gipuzkoako Diputazioarentzat, blog horiek guztiak euskaraz daudelako. Horiek ez ezik, beste asko ere, 170 blogetik gora, euskaraz daude, eta *Aurki.com* albiste biltzaileak jasotzen ditu uneoro.

Bada beste jokabide ez egoki bat egin duena Gipuzkoako Diputazioak eta da hauxe: asko gara gaudenak izena emanda e-postazko buletin batera, *Gipuzkoa.net* atari ofizialean zer dagoen berri jasotzeko. Oraingo astean etorri denak, konpentsatzeko-edo, berritasunetan zekarren lotura bat: *Goiena.net*. Berritasuna, non eta 2003ko udazkenetik dabilenean ekimen hau sarean!. Nola hartuko gaituzte kontuan Deba ibarrean, San Vicente de la Barquerareren parean... Horientzat Gipuzkoa hasten da *DV*-ko orrietan eta amaitzen da Igara-Ibaeta inguruan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aukeratzea dauka nahi dituen aliatuak, baina, mesedez, ez dezala historia faltseatu eta izan dezala errespetu apur bat punta-puntako teknologia erabiliz euskarazko ekimen berriak bultzatzen dihardutenekiko.

JOXE ARANZABAL, 'EIBAR.ORG'
ETA 'GOIENA.NET' KOMUNITATEETAKO
28 BLOGARIEN IZENEAN
Debarroa

Zuloak

Aspaldi honetan modan jartzen ari da herri galdeketak egitea. Azkena Leitzan egin dute pasa den aste bukaeran, harrobi bat jarri nahi zutelako. Gauza da hemen, Arrasaten, baditugula hiru harrobi. Eta nik dakidala, behintzat, ez da sekula herri galdeketarik egin harrobi horien inguruan.

Bestalde, iragarri digute San Josepeko harrobia laster itxi behar dutela Eibar-Gasteiz autobidea dela-eta (proiektu suntsitzaile bat beste txikitzaileago batengatik itxi behar dute).

Garagartzakoak jada mendia eroan du aurretik.

Udalatx historikoki zulatua izan da. Bere barnean duen burdin, berun eta abarrengandik. Kontua da Kanpanzarko harrobiak legeztatuta zuen zabaltasun osoa ustiatu duela. Hau nahikoa ez eta orain barrurantz zulatu nahi dute. Nahi bakarrik ez, zeren hau irakurtzen ari zaren momentu honetan, Udalatx barrurantz doazen bi tunel zulatzen ari baitira. Ikerketa bat dela-eta ari dira zulo horiek egiten. Bi urteko ikerketen ondoren, erabakiko dute Udalatx barruan ez dakit zenbat galeria eta ez dakit zenbateko tamainako zuloak osatzen dituzten proiektua aurrera eroatea edo ez.

Nik Kanpanzarko harrobiaren jabeari zera eskatuko nioke: gelditzeko ikerketa hori orain bertan, herrian galdeketa egin arte eta, era berean, informatzeko herria bere proiektuaren inguruan, gutxienez, arrasatearrok horren inguruan iritzi bat eduki dezagun.

Arrasatearrok ez dakigu ia ezer gure harkaitz kuttuna oraindik gehiago suntsitu nahi duen proiektuaren inguruan. Eta, uste dut informatuak izateko eskubide guztia daukagula.

AITZOL AUZMENDI
Arrasate

Eta, beste 15...

Hauxe idaztera animatu gara zorionak emateko Jardun elkartean lanean diharduten teknikari eta zuzendaritzakoei, azken urteotan elkartean lanean jardun duten guztiei eta elkarteko bazkideei. Zorionak, Jardun, 15 urte bete dituzulako. Urte askotarako, hamabost urteotan Bergaran euskararen erabileraren alde, hainbat arlotan, egindako lanagatik. Eskerrak Jarduni, eta baita beste batzuei ere, esaterako, irakurtzen ari zareten aldizkari hau jasotzen duzue astero, *Berrigara*-rekin batera, laster 15 urte beteko dituen herriko astekaria izan baitzen Jardunen lehenengo egitasmoa.

'BERRIGARA'-KO LANGILEAK
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Iparraldea Oñatin astea ari dira ospatzen Oñatin, eta ekitaldietan batutako dirua Iparraldeko irratiendako izango da. Lapurdiko Gure Irratia da irrati horietako bat. Egoitza aldatu behar dute eta dirua biltzeko kanpaina abiarazi dute.

OIHANA ELORTZA

Lapurdiko irratia izan arren, Gipuzkoara ere heltzen da emisioa, ezta?

Bai. Oarsoaldean, Bidasoaldean, Donostialdean, kostaldean eta Tolosaldean ere entzuten gaituzte. Gipuzkoako erdiguneraino heltzen gara, jende kopuru handien dagoen tokira.

Baionan zaudete oraindik?

Bai, oraindik bai, baina Uztaritzen hartu dugu lokal berria irratia jartzeko, eta egoitza aldaketa egin behar dugu orain.

Baionan bertan gelditzea ez da posible izan?

Iparraldeko kokagune garrantzitsuena da Baiona, eta komunikabide batendako ere oso garrantzitsua da hiri honetan egotea. 23 urte daramatza Gure Irratiak Baionan, eta guretako pena izugarria da hemendik joatea. Saiatu gara bertan beste egoitza bat aurkitzen, baina ez da posible izan. Bai Baionako Udalarekin, bai inguruko herrietako udalekin, hitz egin dugu eta ez dugu, lortu lokal bat gure beharretara egokitzen dena, bai neurri, egoera eta prezio aldetik.

Garesti daude eraikinen alokairuak Baionan ere?

Izugarri garesti. Gu irrati elkarte bat gara eta kolokan bizi gara, Iparraldeko euskararen aldeko gainerako elkarte guztiak bezala. Guretako, ezinezkoa da ordaintzea gaur egun Baionan alokairuagatik eskatzen dituzten kopuruak.

Nolakoa da Uztaritzeko lokal berria?

Uztaritzeko Udalarena da egoitza, eta Landagoien izeneko gunean dago. 270 metro koadro ditu eta, gaur egun dugun egoitzarekin konparatuz, langileen lan baldintzak asko hobetuko dira. Ondo dago egoitza eta egokitze lanak egin behar dira; antenak ere jarri behar ditugu.

Materiala ere berria erosiko duzue ala zaharra eramango duzue egoitza berrira?

Bietatik pixka bat. Gaur ditugun bi estudio eta bi kabina eraman egin nahi ditugu, baina horiez gain, bi kabina gehiago eta hirugarren estudio bat jarri nahi ditugu. Material berria erosten ere izango dugu gastua, bai.

Zenbat diru behar duzue egoitza berria zabaltzeko?

185.000 euro behar ditugu egoitza berrian lanean hasteko.

Eta nola antolatu duzue diru kopuru hori biltzeko kanpaina?

Bi maila ditu kanpaina honek: instituzio publikoei dirua eskatzeko otsailean hasitako kanpaina batetik, eta herritarrei begira antolatutakoa bestetik.

Instituzioei dagokienez, deialdi publikoa zuzendu diegu Eusko Jaurlaritzari, dagoeneko laguntzen diguten Lapurdiko udalei eta Iparraldeko instituzioei. Herritarrei zuzendutako kanpainan, berriz, ekitaldiak izango ditugu; adibidez, Oñatin antolatu duten aste hau. Horrez gain, ekainetik abendura bitartean hainbat euskarri aterako ditugu; diskoak, adibidez. Gainera, 20 komunikabiderekin harremanetan gaude gure mezua Euskal Herri osoan zabaltzeko.



LE JOURNAL DU PAYS BASQUE

Agus Hernan

GURE IRRATIKO ZUZENDARIA

“Hizkuntza planik gabe etorkizun zaila izango dute Iparraldeko euskal irratiek”

DIRUA BILTZEKO KANPAINA

“Gure Irratiak Uztaritzen du egoitza berria eta 185.000 euro behar ditugu egokitzeko eta lanean hasteko. Instituzioei zein herritarrei zuzendu diegu dirua biltzeko kanpaina”

EUSKAL IRRATIAK

“Gure Irratiak, Irulegi Irratiak, Xiberuko Botzak eta Antxeta Irratiak osatzen dute Euskal Irratiak elkartea, eta emankizun asko egiten ditugu elkarrekin egunero”

Aipatutako CDetan, gainera, Oñatiko bi taldek hartzen dute parte, ezta?

Baietz uste dut. Bi CD aterako ditugu. Lehenengoa Euskal Herriko rock taldeen CD bat da eta ekainean aterako dugu *Gara* egunkariarekin. Bigarrena Iparraldeko kantariekin grabatuko dugun CD bat izango da eta hau *Berria* egunkariarekin salduko dugu. Urrian grabatuko dugu disko hau, eta Durangoko azoka baino lehen aterako dugu kalera. Abenduko Durangoko azokan postu bat jarriko dugu kanpaina indartzeko eta aterako dugun material guztia saltzeko.

Zenbat lagunek egiten duzue lan Gure Irratian?

Momentu honetan 11 pertsona gara lantaldean eta beste 80 boluntario gisa ari dira. Ezinbestekoa da boluntarioek ematen diguten laguntza. Adibidez, asteburukoak, kirol laguntzaileak, kronikak egiten dituzten kazetariak eta gaueko emankizunak egiten dituztenak.

Eta zenbat entzule ditu?

Iparraldeko euskal irratiok elkarte bat osatzen dugu, Euskal Irratiak. Bertan lau irrati gaude: Gure Irratia, Irulegi Irratia, Xiberuko Botza eta, Antxeta Irratia. Inkesten arabera, 60.000 entzule dituzte lau irrati hauek eta datuei kasu egiten badiegu, Lapurdin 24.500 lagunek entzuten dute Gure Irratia.

Elkarrekin egiten duzue lan Iparraldeko lau irratiek?

Bai, emankizun asko egiten ditugu elkarrekin egunero. Euskarazko bigarren irratia gara entzule kopuru aldetik.

Eta zer-nolako harremanak dituzue entzuleekin?

Zaila da hartu-eman interaktiboa lortzea. Harreman klasikoak ditugu: euren kezkak esateko deitzen dute, edo baita iritzia emateko eta lehiaketetan parte hartzeko ere. Bestalde, urtero kanpaina berezi bat egiten dugu entzuleekin, eta harreman polita dugu zentzu horretan.

Ze eragozpen dituzue lanerako?

Lehen esan bezala, irrati elkarte bat gara eta funtzionatzen dugu Frantziak duen lege berezi baten arabera. Frekuentzia legalak eta baimenak baditugu eta baita dirulaguntza berezi batzuk ere irrati gisa. Gure moduko 640 irrati daude erregistratuta estatu frantsesean eta horren inguruan lan egiten dugu.

Laguntza publikorik izaten duzue Frantziako instituzioen aldetik?

François Mitterrand Frantziako presidentea izan zenean, sistema berezi bat jarri zuen indarrean: Frantziako irratietan jartzen dituzten *kuña*, iragarki, bakoitzeko zerga 640 irrati hauendako da. Sistema bakarra da Europan eta gure lanerako behar dugun diru iturri garrantzitsuena da, baina ez bakarra. 1981ean arautu zuen lege hau Mitterrand presidente ohiak.

Hala ere, sistema nahiko maltzurra da. Laguntzen du, baina ezin duzu kopurua handitu zuk nahi duzun heinean; hau da, zure aurrekontuaren kopuru bat pasatu ondoren, laguntza murriztu egiten da.

Nola hasi zen lanean Gure Irratia?

Gure Irratia duela 23 urteko abenduaren 24an hasi zen hizketan Baionatik gertu dagoen Milafranga herrian. Hiruzpalau orduko emisioa egin zuten egun hartan. Lagun baten etxean jarri zuten estudiotik egin zuten lehendabiziko programa eta bi urtez Milafrangako etxetik emititu zuen Gure Irratiak boluntarioei esker.

Bi urte igaro ondoren, Baionara joan ziren eta lehendabiziko langilea hartu zuten. Lokal txiki batean kokatu ziren Baionako erdigunean eta poliki-poliki handitzen joan da harrezkero.

Zer aldatu da ordutik hona Gure Irratian?

1997an hartu nuen nik zuzendariaren postua. Krisi handian zegoen orduan irratia. Urte hartan lokala aldatu genuen, ekipoa eta programazioa berritu genituen. Eta hasi ginen lanean Irulegi Irratia eta Xiberuko Botzarekin batera. Gero Antxeta Irratia etorri zen. Hazparnen ere bigarren estudio bat zabaldu dugu.

Ordutik hona lan asko egin du Gure Irratiak eta Euskal Herriko komunikabideetan bere tokia hartu du. Internet bidez ere entzuten da Gure Irratia.

Nolako irratia da Gure Irratia?

Antxeta Irratiak, adibidez, tokiko informazioa lantzen du. Gure Irratia, aldiz, irrati nazionala da, Euskal Herri osoko albisteak ematen ditu.

Ze etorkizun ikusten diozu?

Euskararen egoeragatik nago kezkatuta. Azken hamarkadan 15.000 euskal hiztun galdu dira Iparraldean eta ondorengo 10 urteotan beste horrenbeste galduko direla uste da. Gure entzuleak dira horiek, eta hizkuntza planik jartzen ez badute, zaila izango du etorkizuna izatea.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a

350 lagun, Aizkorriren itzalean gorriak ikusteko gertu

Domekan, 09:00etan hasiko dute Zegama-Aizkorri mendi maratoia

XABIER URTZELAI

Mendiko lasterketetako erregea dugu Zegama-Aizkorriko mendi maratoia, munduko kopako lehen proba puntuagarria. 42 kilometro pasatxotan, korrikalariek 5.472 metroko gorabehera gainditu beharko dute. Erraz esaten da.

Aizkorriko maratoiaren gainean berba egiteko eskubide osoa irabazi zuen Zuhaitz Ezpeletak joan den urtean, hark eman zuen eta lasterketako ezustea, bigarren sailkatuta (4:08:45). Bedoñakoak aitortu digu, baina, aurten urduriago dabilela: "Joan den urtean inork ez ninduen ezagutzen, eta sorpresa eman nuen. Orain, berriz, nahiz eta gorputzaldi onean egon, azkeneko asteak urduri samar egin ditut, eta hori ez da seinale ona".

Debagoiendarrok Aloñako igoera dugu Bedoñakoaren azken erreferentzia, ez zuen egun ona izan: "Egia da hori, baina kontuan hartu beharrekoa ere. Azkenean, buruak lan handia egiten du, zortea beharko dugu Aizkorrin".



GOIENKARIA

Zuhaitz Ezpeleta mondragoetarrak bigarren lekuan amaitu zuen iaz.

ERRITMOA ZAINDU

Ibarreko batek baino gehiagok hartuko du esku domekan lehenengoz lasterketan: "Joan daitezela euren erritmora, ez besteen erritmora. Hasierako ordu eta erdian denok gara azkar joateko gauza, baina hori larrutik ordaintzen da gero. Ni neu ere horrela aterako naiz, nire erritmora. Aurrera egin behar dutenek egin dezatela aurrera, lasterketa luzea da".

> "Nor bere erritmora has dadila, hasieran guztiok gara azkar joateko gauza; proba luzea da"

Milaka ikusle batuko dira domekan Aizkorriko inguruetan parte-hartzaileak animatu guran. Non eskertzen dira txaloak gehiago? "Lasterketa guztian zehar dira animu horiek beharrezko, baina esango nuke azkeneko zatia dela gogorrena, Andraiztik Zegamarako zatia. Gainera, orduan egoten da jende gutxien animatzen. Begi-bistan izaten dugu Zegama, baina ezin iritsi".

Badirudi etzi oraindik ere epel egingo duela, eta hori ere zaindu beharrekoa izango da.

Kirolabur

ARRASATE/LEINTZ ESKOLA KIROLEKOEN AZKEN JAIA

Bihar egingo dute Leintz Eskola Kirolekoek azken jaia, Laubiden. Aurten, egitura berria egin dutenez, mila neska-mutiko inguru ibili dira astebururo kirol ekitaldiak egiten. Eta, bihar egingo dute urte osoko lana ospatzeko jaia. 10:00etan hasita, eskola kiroleko gaztetxoak herri probetan ibiliko dira.

OÑATI/ALOÑAKOAK, FINALETAN BURU-BELARRI

Aloña Mendiko eskubaloiko emakumeek bi final jokatuko dituzte bihar, zapatua, Kopa Txapelketan lan ederra egin duten seinale. Aloña Verkolekoek, gainera, Zarautzeko Haldaketa Hamasei taldearen kontra jokatuko dituzte bi finalak, gazte eta kadete mailakoak. Eibarko Ipuruako kiroldegian izango dira partiduak, 16:15ean kadeteena, eta 18:00etan gazte mailakoena.

ESKORIATZA/DENBORALDIA AMAITZEKO TXAPELKETA

Bihar jokatuko dute, Eskoriatzako areto futbol taldekoek hiru taldeen arteko txapelketa. Horrela esango diote Eskoriatzakoek agur aurtengo denboraldi biribilari. 18:00etan hasita, Gasteizko Carniceria Sanz, Gernika eta Eskoriatza taldeek jokatuko dute txapelketa, eta Ligako tentsioa alde batera utzita, joko ikusgarria egiteko apustua errazago egin ahal izango dute.

DEBAGOIENA/TRIATLOIKO IZENEMATEA

Debagoieneko Triatloia ekainaren 4an egingo dute, eta antolatzaileek ibarrekoen partaidetza bultzatu gura dute. Hala, federatutakoak ez diren guztiak esku zabalik hartuko dituzte. Hori bai, astelehena izango dute izena emateko azken eguna. Horretarako, 943 77 16 77 telefonora deitu, edo *www.antxintxika.org* helbidean sartu.

ARRASATE/ERRUGBIAN OMENALDIA

Bihar, Arrasate Errugbi Taldeak omenaldia egingo dio taldeko lehenengo presidente izan zen Luis Mari Etxaburu zenari. Hala, biharko omenaldian (12:00etan, Garagartzan), Arrasateko taldeko senior eta beteranoek bi talde egingo dituzte, eta euren arteko norgehiagoka egongo da ikusgai.

DEBAGOIENA/AZKEN JARDUNALDIAN, DERBIA

Asteburuan jokatuko dute preferentean denboraldiko azken jardunaldia, eta aspaldi jokatu duten derbirik tristeena jokatuko dute bergararrek bihar (16:30ean, Agorrosinen) Aretxabaletaren kontra (GOITB). Mondrak Mutrikun esango dio agur denboraldiari (Domekan, 17:15ean), eta Aloñak ere beste horrenbeste egingo du domekan, Anaitasunaren kontra (17:30ean, Txerloia futbol zelaian).

Urteek emandako ajeak arintzen ditu kirolak

Edadetuendako kirol jaia antolatu du Oñatin Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak

Edozein adin da ona kirola egiteko, modu normalean eta erregularrean egiten bada. Eta jakinekoa da kirola egitea ona dela makina bat gauzatarako. Beraz, edadetuendako ere ona da kirola egitea, eta ariketa fisikoak, gainera, asko arinduko dizkie urteek ematen dituzten ajeak.

Ikusi besterik ez dago: kirola egiten duten edadetuak hobeto mugitzen dira, traba gutxiago aurkitzen dituzte han eta hemen ibiltzeko, animatuagoak daude eta lortzen duten arintasunari esker, erortzeko arrisku gutxiago izaten dute. Eta honi guztiari gehitu behar zaio, noski, bihotzekoak izateko arrisku txikiagoa dutela, kolesterola zaintzen laguntzen diela kirolak, eta hipertentsioa eta diabetea kontrolatzen laguntzen diela. Eta noski, lasaiago bizi dira; estresa txikitzen du kirolak.



Hainbat kirol egingo dituzte edadetuendako kirol jaian.

KONSTANTZIA DA GAKOA

Baina kirola ez da edozelan egin behar. Esan bezala, modu normalean eta erregularrean egin behar da eta ez da gehiegikeriarik egin behar. Konstantzia eta erregulartasuna dira gakoak. Oinez zein bizikletan ibili, igeri egin nahiz korrika egin, modu progresiboan eta neurriz egin behar dira.

Baina bakoitzak bilatu behar du bere kirola eta kirola egiteko bere martxa, bere erritmoa. Pertsona guztiok ez gara berdinak eta gaixotasun bakoitza ezberdina da. Gainera, gaixotasunek hainbat fase eta aldakorrak izaten dituzte. Horregatik, bakoitzak ikusi behar du zein kirol komeni zaion, zein kirol egin dezakeen eta nola eta ze maiztasunekin egin dezakeen. Urteak soinean eramatea beti da errazagoa kirola eginez gero, egoera fisikoa hobetzen laguntzeaz gain, kirolak egoera psikikoan ere laguntzen duelako.

OÑATIN EDADETUEN KIROL JAIA

Azaldutako hau guztiagatik eta beste arrazoi gehiagogatik, Debagoieneko edadetuen kirol jaia egingo dute datorren egubakoitzean, ekainaren 3an, Oñatin. Sasoian egoteko gimnasiako saioetan izena emanda duen edozein erretiratuk har dezake parte; maiatzaren 30a baino lehen eman behar da izena bakoitzaren herriko kirol zerbitzuetan. Autobusa izango da Oñatirako.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- Nazioarteko Merkataritza
- Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Merkataritza

EIBAR

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 /
Faxa. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- Informatika Aplikazioen Garapena
- Informatika sistemen administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika Sistemen Ustiapena

ERMUA

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa. 943 17 64 50
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com



Aurrematrikula: ekainaren 1etik 8ra

ekainaren 3tik 5era

BIOTERRA 2005

PRODUKTU EKOLOGIKO, KUDEAKETA EKOLOGIKO ETA INGURUMENAREN AZOKA

Bioterra 2005 azokan egongo dira ordezkaturik sektore ugari, ekologia esparruak egiten duen eskaintza zabalaren isla izan nahian. Publiko oro nahi profesionalentzako ere, eskaintza ugaria izango da konferentzi eta tailerren aldetik. Programa osoa kontsultatu dezakezue azokaren web horrian: http://bioterra.ficoba.org.

Etor Zaitez Bioterrara!!

F I C O B A
Iparralde Hiribidea, 43
20302 IRUN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 66 77 88 - Faxa 943 61 61 64
ficoba@ficoba.org - www.ficoba.org

Babesle:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento

irun - hendaia

AURREMATRIKULAZIO EPEA
ekainaren 1etik 8ra

LANBIDE HEZIKETA
heziketa zikloak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako
biderik onena

AENOR ER Empresa Registrada ER-0226/2/02

IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

IEFPS Aretxabaleta GLHBI

ETXEBIZITZAK

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



Prezioen bilakaera

Etxebizitzak herriz herri

Etxea erosteko gestioak

Babes ofizialeko etxebizitzak

Etxabeak, bizitoki

AZALA: MAITENA ARANA

erakusketa aldaketa dela eta

-30 40 50

(barrenkaleko dendan bakarrik)

edertu

barrenkale, 23 tel/fax 943762965

masterreka, 9-11 tel 943765879

BERGARA

ZUTARRI S.L. ERAIKUNTZA ENPRESA

“Kalitatea, argitasuna aurrekontuetan eta lanendako epe egokiak eskaintzen ditugu”

Juan Mari Osinaga Egidazu arkitekto teknikoak gidatutako lan taldeak zaharberritze lanak zein lan berriak eskaintzen dizkizu, kalitatea eta argitasuna berme dituela betiere.

Esperientzia handiko eraikuntza enpresa da Zutarri; izan ere, 15 urte daramatza lanean Debagoieneko herrietan zein kanpoan. Juan Mari Osinaga Egidazu arkitekto teknikoaren esanetara egiten du lan taldeak, 17 lagunek osatu izan duten taldeak.

Kalean egin beharreko lanik errazenetik hasi eta etxebizitza osoa egiteko gai da Zutarriko lan taldea. Hortaz, hainbat eratako lanak egiten dituzte: berritze lanak etxebizitzetan, lan berriak eta administrazio publikorako proiektuak, besteak beste. Gainera, Juan Mari Osinagak berak egiten ditu lanen proiektuak, baina bezeroak kanpotik ekarritako proiektuaren aurrekontua gura badu, arazorik gabe egingo diote.

BERRITZE LANAK

Era guztietako berritze lanak egiten dituzte. Ohikoenak dira etxebizitza barruetan, baserrietan eta etxebizitzen fatxadetan. Etxebizitza guztia hustu, goitik behera berritu eta giltza eskuan emateko gai dira. Gremioak kontratatzeak dakartzan burukominak kentzen dizkiote jabeari, eta lanen ardura osoa hartzen du Zutarrik, hasieratik bukaeraraino. “Geuk kontratatzen ditugu guztiak, bota beharrekoak botatzeko hondeamakinak eta etxea bukatuta uzteko gremio guztiak”, dio Zutarri enpresako buruak, Juan Mari Osinagak.Horrez gain, industria lanak egiten dituzte: pabilioiak eta industria-nabeak, esaterako.

Gainera, berritze lan artistikoak, etxe monumentalak, egiteko beharrezkoa den sailkapen agiria du Zutarrik. Hala, benetan proiektu interesgarriak eroan dituzte aurrera: Eskoriatzako Marin auzoko parrokia berritzea, Aretxabaletako Apotzaga-Etxebarri auzoko ermita zaharberritzea eta Leintz Gatzagako gatz museoa gertu ipintzea, besteak beste. “Esperientzia, ezagutza eta baliabide egokiak behar beharrezkoak dira zaharberritze lan artistikoak egiteko. Oso garrantzitsua da garai baten egin zuten moduan egitea, orduan izandako itxurari eusteko, eta horretarako ondo dokumentatu beharra izaten dugu. Erabili beharreko materialak ere ez dira nolanahikoak izaten”, dio Juan Mari Osinagak.

LAN BERRIAK

Berritze lanak bakarrik ez, lan berriak ere egiten ditu Zutarrik. Etxebizitza familiabakarrak –Eskoriatzan, esaterako– eta bungalowak egin izan ditu; hor daude Leintz Gatzagako Gaztainuzketako bungalowak. Etxebizitza osoa bota eta oinarrietatik berriro eraikitzea ere tokatu izan zaie Arrasaten bertan, eta benetan etxe dotorea egiteko gai direla erakutsi dute.

Administrazioarendako ere lan asko egiten dabiltza: Eskoriatzako Biblioteka, umeen igerilekua eta Bolibar auzoko hilerria, esaterako, Zutarrik egin ditu.

KALITATEA ETA EPEAK

Bezeroak prezioari begiratzen dio, horrexek kezkatzen du, baina Zutarrik argi dauka zer bermatu behar duen: kalitatea. Etxebizitza dela, beste edozein lan dela, kalitatea bermatzeari oso garrantzitsu deritzo Juan Marik: “Kalitatea eta argitasuna egindako aurrekontuetan, horixe eskaintzen diogu gure bezeroari. Kalitateari dagokionean, materialen kalitatea bakarrik ez da hartu behar kontuan; material hori zela jartzen den ere oso garrantzitsua da.”

Lana bukatzeko epeari ere asko begiratzen diote, eta esandakoa betetzea dute helburu. Kalitatea eta epea kontuan hartuta egiten dute aurrekontua. Argi eta garbia izango da, gainera, bezeroak jasoko duen aurrekontua.

Edozein eratako lanaren gaineko informazioa gura izanez gero, Zerkaosteta kaleko 17. zenbakian dago Zutarri eraikuntza enpresa, eta gustura erantzungo dizute hantxe. Etorri eta zeuk ikusiko duzu.

“Materialen kalitatea bakarrik ez da hartu behar kontuan; material hori zela jartzen den ere oso garrantzitsua da”

Edozein eratako zaharberritze lanak egiten ditu Zutarriko taldeak, baita lan berriak ere.

Zerkaosteta kaleko 17. zenbakian dago Zutarriren bulegoa, Arrasaten.

ZUTARRI S.L. - Eraikuntza enpresa - Bulegoa: Zerkaosteta 17, behea - 20500 Arrasate - Gipuzkoa
Juan Mari Osinaga Egidazu - Arkitekto Teknikoa / Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09 / zutarri@infonegocio.com

■ HURRENGO URTEOTAKO ETXEAK

Etxe berriak Debagoienean

M.A.

Etxetik alde egin gura duten gazteendako eta kanpotik etorri diren etorkinendako etxebizitzak behar dira gure herrietan. Eta makinatxo bat egingo dituzte hurrengo urteotan. Babes ofizialekoak edo libreak, familiabakarrak edo elkarri atxikiak, aukera zabala egongo da hasi Eskoriatzatik eta Elgetara bitartean. Hortaz, ezin esan etxe berririk ez dugunik izango; prezioa beste kontu bat da.

Arrasate

AGERRE KALEA
- 82 etxebizitza
- 46 familiabakarrekoak
- 36 libreak

ATXABALPE
- 224 etxebizitza
- 112 librea
- 112 finkatutako preziodunak

AZERI
Polmetasa lantegia dagoen lekuan
- 220 etxebizitza
- 154 libreak
- 66 babes ofizialekoak: bataz beste 90 metro koadro izango dituzte; %65 bi logelarekin eta %35 hirurekin

GESALIBAR
- 25 etxebizitza libreak

ELEXGARAI
Aita Menni ospitale alboan
- 16 etxebizitza libreak

AKISOALDE
Garagartza
- 96 etxebizitza
- 38 libreak
- 58 babes ofizialekoak

URIBARRI
- 180 etxebizitza
- 140 libreak
- 40 babes ofizialekoak

MEATZERREKA
- 28 etxebizitza
- Bifamiliakoak guztiak

ZALDIBAR
- 18 etxebizitza baina gehiago izan daitezke

ZABALGUNEA
Gelma lantegia bota eta aurten hasiko dira eraikitzen.
- 418 etxebizitza
- 293 libreak
- 125 babes ofizialekoak

URUBURU
Uribarriko elizaren alboan
- 74 etxebizitza
- Bifamiliakoak guztiak

ZERRAJERA
Ospitale alboan
- 476 etxebizitza guztiak babes ofizialekoak 200 babes ofizialekoak (aurten hasiko dira eraikitzen)
- 276 Udalaren eskuetan geratuko dira aurrerago eraikitzeko

ZIGARROLAKO paseoa
- 85 etxebizitza
- Libreak guztiak eta eraikitzen dabiltza

ZARUGALDE
- Zaharrak bota eta berriak eraikitzen dabiltza

MAALAKO ERREBALA
- 20 etxebizitza
- Zaharrak bota eta berriak eraikitzen dabiltza

MAALAKO ERREBALA (okindegia dagoen lekuan)
- 30 etxebizitza
- Zaharrak bota eta aurten hasiko dira berriak eraikitzen

LEGARRE
- 76 etxebizitza libreak

GAUTXORI
- 70 etxebizitza
- Libreak dira guztiak eta eraikitzen dabiltza

GARAIA
- 6 etxebizitza
- Familiabakarrekoak guztiak, aurten hasiko dira eraikitzen

Aretxabaleta

TUBOS DE PRECISION I antegi alboan
- 20 etxebizitza
- Guztiak babes ofizialekoak
- Errentan emateko dira, eta zozketa eginda dauka Eusko Jaurlaritzak

DEBA IBAIAREN BESTE ALDEAN
- 428 etxebizitza
- 100 babes ofizialekoak
- 185 Udalak finkatutako preziodunak; zozketa eginda dago
- 45 promotorearen eskuetan geratuko dira
- 80 libreak
- 18 familiabakarrekoak edo bifamiliakoak

CERRAJERA VALLE LENIZ lantegi alboan
- 121 etxebizitza
- Libreak dira guztiak eta 2006an hasiko dira eraikitzen

ARABA IBILBIDEA
San Martin inguruan
- 110 etxebizitza
- Libreak guztiak, eta ez dute datarik

Aramaio

PEDRO INAZIO BARRUTIA:
- 44 etxebizitza
- Babes ofizialekoak izango dira guztiak eta proiektua egin zain daude

ITURRIZURI
sarreran
- 13 etxebizitza
- 13 etxe elkarri atxikiak

Eskoriatza

INTXAURTXUETA
- 48 etxebizitza
- Libreak dira guztiak eta oraindik ez dira hasi eraikitzen

SANTA MARINA
- 145 etxebizitza
- 115 libreak
- 30 finkatutako preziodunak

ELORRETA
Bolibarrera bidean
- 50 etxebizitza
- Txaletak dira guztiak eta aurten hasiko dira eraikitzen

GAZTANADUI AUZOA
Kuatruena
- 50 etxebizitza
- Familiabakarrekoak eta elkarri atxikiak dira eta aurten hasiko dira eraikitzen

Leintz Gatzaga

- Oraingoz ez dute egin behar baina urte bi barru egiten hasteko tramiteak egiten dabiltza

Aretxabaleta

IBARGARAI
- 96 etxebizitza
- Guztiak libreak eta eraikitzen hasita daude

MASTERREKA
- 2 bloke
- Guztiak dira libreak eta bukatzen dabiltza

ZUBIAURRE:
- 12 etxebizitza
- Bukatuta daude

SAN LORENTZO
- bloke bat
- Guztiak libreak dira eta eraikitzen hastekotan daude

MUGARTZA
- Hainbat etxebizitza
- Zaharrak bota eta berriak egingo dituzte

URTEAGA
- 20 etxebizitza
- Guztiak babes ofizialekoak

URTEAGA
Mobillaz lantegia egon zen lekuan
- hainbat etxebizitza
- 100 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

AMATEGI inguruan
- 60 etxebizitza
- Guztiak babes ofizialekoak

SAN LORENTZO
Tornilleria Deba lantegi inguruan
- hainbat etxebizitza
- 40 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

SAN ANTONIO
Algodonera lantegia egon zen lekuan
- Hainbat etxebizitza
- 24 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

SAN ANTONIO
Kamineruaren etxea egon zen lekuan
- 32 etxebizitza
- Foru Aldundiak finkatutako preziodunak guztiak

OSINTXU
- 16 etxebizitza
- Finkatutako preziodunak guztiak eta bukatzen dabiltza

UBERA
- 8 etxebizitza
- Familiabakarrekoak guztiak; irailean hasiko dira lanak

ANGIOZAR
- 8 etxebizitza
- Familiabakarrak guztiak eta laster hasiko dira eraikitzen

Elgeta

TORREALDEA
- 76 etxebizitza
- 20 babes ofizialekoak
- 56 libreak; hasita daude eraikitzen

URIBURU
- 66 etxebizitza
- 10 familiabakarrak
- 20 bifamiliakoak
- 18 elkarri atxikiak
- 18 finkatutako preziodunak
- Libreak aurten hasiko dira egiten eta finkatutako preziodunak beranduago

Elgetako Torrealdean 76 etxebizitza egingo dituzte, 20 babes ofizialekoak.

Antzuola

BEHEKO AUZOA
- 11 etxebizitza
- Libreak guztiak

KALEGOI
- 13 etxebizitza
- Libreak guztiak

SAGASTI AUZOA
- 32 etxebizitza
- Libreak guztiak eta bukatzen dabiltza

Oñati

KALEGOIENA
- 85 etxebizitza
- 69 libreak
- 16 babes ofizialekoak
- Eraikitzen dabiltza, eta 2006an bukatuko dituzte

IGARTUA
Arantzazura bidean
- 8 etxebizitza
- Bifamiliakoak guztiak

KURTZEKUA: 60 etxebizitza
- 12 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak: familiabak arrekoak eta familiabakarreko etxe atxikiak

KASABLANKA
- 90 etxebizitza
- 72 libreak
- 18 babes ofizialekoak

BIDEBARRIETA
- 32 etxebizitza
- Guztiak dira familiabakarreko etxe atxikiak: 10 bukatuta daude, eta 22 eraikitzen

LAZARRAGA
- 172 etxebizitza
- 89 libreak
- 83 babes ofizialekoak
- Luzerako kontua izango da

KURTZEBIDE
- 24 etxebizitza
- Libreak guztiak

OLABARRIETA
- 30 etxebizitza
- Bifamiliakoak guztiak

KIRRUKUA
- 76 etxebizitza
- Familiabakarrak, bifamilikoak eta elkarri atxikiak
- Epe luzera aurreikusita daude

UGARKALDE
- 300 etxebizitza
- 195 babes ofizialekoak
- 15 finkatutako preziodunak (180.000 euro inguruan)
- 30 bifamiliakoak
- 60 libreak
- Aurten hasiko dira eraikitzen

SAN MARTIN
- 306 etxebizitza
- 12 finkatutako preziodunak
- 294 libreak
- Laster hasiko dira eraikitzen

■ ETXEBIZITZEN PREZIOAK

Gipuzkoako etxebizitzarik garestienak ditugu ibarrean

M.A.

Etxebizitza garestiak ditugu gero Debagoienean, Gipuzkoako garestienak kostaldekoekin batera. 1999an hasi ziren igotzen, eta metro koadro erabilgarria 1.000 euro ordaintzetik 3.000 euro ordaintzera pasatu gara azken bost urteotan.

Oso garesti daude etxebizitzak gurean; bai berriak, bai bigarren eskukoak. Babes ofizialekoei dagokienean ere, Euskal Autonomi Erkidegoa da garestiena Espainiako estatuan. Hala ere, itxaropen izpi bat dugu, hurrengo lau urteotan ez dira-eta hainbeste garestituko.

BOST URTEKO KONTUA

Prezioen lehenengo igoera 1996an gertatu zen. Hala ere, ez zen izan derrepenteko igoera, eta interes tipoen jaitsierak eragin zuen neurri handi baten.

Azken bost urteotan, 1999tik hona, izugarrizko igoera izan dute etxebizitzek. Metro koadroa 1.000 euro ordaintzetik 3.000 euro ordaintzera pasatu gara. Etxebizitza berriak garestitu diren neurrian, bigarren eskukoek ere gora egin dute, eta errentan ematen direnak ere bai.

Azken urtean %15,5eko igoera izan dute etxe berriek, iaz baino %1 gutxiago, eta bigarren eskukoek, %15,9koa. Hortaz, prezioen igoera desazeleratzen hasi da, eta aurten %12 haziko direla uste dute adituek. Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) gainetik igotzen jarraituko dute etxeen prezioek, baina hurrengo lau urteotan normaldu egingo direla aurreikusi du Madrilgo Higiezinen Sustatzaileen Elkargoak. Hala, 2006an, %9,3 haziko direlakoan daude.

Debagoienean, herririk garestiena Arrasate da: metro koadroa batez beste 3.125 euroren bueltan dabil. Hala ere, Leintz bailaran, herri arteko diferentzia oso txikia da, %5 eta %8 artekoa. Bergaran, ostera, %8 eta %10 merkeagoak dira prezioak Arrasaterekin alderatuta.

Arrasaten daude etxe garestienak, baina Leintz bailaran diferentzia txikia dago

PREZIOEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

ITURRIA: DEBA GARAIA



*Metro koadro erabilgarrien prezioa

BABES OFIZIALEKOAK

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen babes ofizialeko etxeak merkeagoak dira, eta asko zozketen zain daude. Hala ere, Espainiako estatuko garestienak ditugu EAEn. Metro koadroaren prezioa, gainera, aldatu egiten da herriz herri: Arrasaten 1.262 euro balio du metro koadro erabilgarriak; Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza eta Oñatin, 1.221 euro; eta gainerako herrietan, 1.103 euro. Etxebizitza sozialen kasuan, sustapen publikokoak 580 euro balio du metro koadroak, eta sustapen pribatukoak, 771 euro. Prezio hauek guztiak 2005-etik aurrera urtero eguneratuko dituzte irailaren 1ean. Eguneratzeko, KPIa hartuko da kontuan.

excavaciones
ARRASATE
hondeaketak
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26
Sakelekoa: 659 671 759
e.arrasate@euskalnet.net

Aretxabaletako Udala
Otalora 1
Tel.: 943 71 18 62
Faxa: 943 71 18 64
www.aretxabaleta.com

Bergara | Arrizuri Parkea

Eraikuntza modernoa, bai itxura aldetik eta baita etxebizitzetan jasoko diren berrikuntzengaitik. Eroso bizitzeko pentsatutako etxeak.

44 etxebizitza jadanik salmentan.
Telefonoa: 943 76 90 80

Eskoriatza | Elorreta

Laister salmentan, 50 etxebizitza bifamiliar, belardi, lorategi eta bestelako berezitasun guztiekin.

sukia
Kalitatea helburu

www.sukia.com

Oñati | Ugarkalde

Auzo berri bat sortuko dugu Oñatin, 300 bat familiarentzat paraje lasai batetan etxebizitzak eskeintzen (195 babes ofizialekoak).

Onartuta dago Debagoienerako proiektatu den **tranbia** bertara iristea.

■ UDAL GESTIOAK

Etxearen egoera jakitea komeni da

M.A.

Erabakia hartzea da garrantzitsuena, baina etxea erostea erabaki ostean, paper kontuak datoz. Hara ze burukomina! Udaletxera joan, banketxearekin berba egin, notaritzara sinatzera... Ez ote zaigu paperen bat ahaztuko?

Behin etxea erostea erabakita, paper kontuak egitea tokatzen da. Banketxera joatea oso garrantzitsua da; bestela, zela ordaindu? Eta notarioaren aurrean eskriturak sinatzea ere ezinbestekoa da etxea norberarena izan dadin. Hala ere, badaude beste gestio batzuk, ez hain ezagunak, baina bai oso garrantzitsuak .

UDALETXERA

Etxebizitza erosi aurretik, udaletxera joatea komeni da. Berria erosi gura bada, proiektuaren gaineko informazio guztia izango dute: zein hitzarmen dagoen enpresa eraikitzailearekin, zein baldintza jarri dizkion Udalak, erabiliko duten materiala... Hobe da hasieratik xehetasun guztiak jakitea gero ez damutzeko.

Erosi gura den etxeak ordaindu bariko zergarik duen denboraz jakitea komeni da

Etxea bigarren eskukoa bada, Jabetza Erregistroan egin behar da kontsulta, kargatzeko gastu barik dagoen jakiteko. Bestalde, udal planeamenduarekiko etxebizitza zein egoeratan dagoen jakin behar da udaletxean. Izan ere, ordenaziotik kanpo egonez gero, eraikina bota edo egokitze lanak egin beharra toka dakioke jabe berriari.

ZERGA ARLOA

Erosi gura den etxeak ordaindu bariko zergarik duen denboraz jakiteko, udaletxera jo behar da. Etxebizitza eskualdatzeak sortuko duen zergaren kuotaren zenbatekoa (gainbalioa) galdetzea komeni da udal bulegoetan; hiri lurren balio gehitzearen gaineko zerga, hain zuzen. Etxeak beste zerga bat ere badauka: Ondasun Higiezinen gaineko zerga (OHZ). Urteko izaera dauka; hortaz, herritarrei ez zaie banan-banan zerga honen berri ematen. BOEn argitaratutako iragarki bidez jakinarazten dute zeintzuk diren kobratze epeak. Zerga hori ordaintzeko, banku helbideratzea erabiltzea komeni da, epeak bete ez izanagatik gainkargurik ez izateko. Erositako etxeak higiezinaren zorrik duen edo zaborraren eta uraren zergak ordainduta dituen kontsultatzea ere ez dago txarto; bestela, Udalak jabe berriari ordainaraziko dizkio.

M.A.

Erosi gura den etxea zein egoeratan dagoen udaletxean galdetu behar da.

API Iñaki Arrieta
Iñigo San Miguel

ARRIETA & SAN MIGUEL

INMOBILIARIA-AGENTZIA

- Zure etxearen salerosketa errazten dizugu
zerbitzu guztiak eskainiz.

- Aukera zabala industrialde eta pabilioietan.

- Finkak administratzeko zerbitzua
eskaintzen dizugu.

www.arrietasanmiguel.com

Iturriotz 23 behea - Arrasate - 943-71 17 81
Ilargi Plaza 6 behea - Aretxabaleta - 943-53 40 00

KUTXA

“Etxebizitza erosi edo saldu gura duenak aholkularitza zerbitzua dauka doan gurean”

Etxebizitza erosi edo saldu behar duten guztien interesekoa izango den aholkularitza zerbitzu paregabea eskaintzen du Kutxak. Salerosketari hasieratik bukaeraraino jarraituko dion zerbitzua da, abantaila guztien berri emanaz, eta norberari egokitutako aholkurik onenak eskainiz. Itziar Irazusta da Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Zer da Kutxako Etxebizitza Zerbitzua?

Etxebizitza erosi edo saltzeko asmoa duten pertsona guztiei zuzendutako zerbitzua da. Salerosketa prozesu osoan laguntzeko asmoz sortu zen, eta guztiz dohainik eskaintzen dugu.

Zergatik eskaintzen duzue?

Etxebizitza baten salerosketa pertsona edo famili batean bizitzako finantza operazio garrantzitsuena izaten da. Gutxitan errepikatzen den operazioa da, eta kontzeptu berri eta ezezagun asko sortzen dira. Arrazoi hau dela eta, Kutxan oso konprometituta sentitzen gara egoera horretan dauden pertsonei prozesu osoan kalitateko aholkularitza zerbitzu bat eskaintzeko.

Zer nolako aholkularitza eskaintzen duzue zerbitzu honen bitartez?

Bi helburu ditugu:

Batetik, bezeroaren neurrira finantziazio proiektu bat eskaintzea. Hala, entitateak, urteetan zehar, finantziaziorako bi aukera eskaini ditu: interes finko edo aldagarriko maileguak. Gaur egun, Kutxan finantziazio mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua.

Eta bestetik, bezeroak salerosketagatik dauzkan abantailen berri izan dezala:

Salerosketa bakoitza erabat desberdina da, eta pertsonek lortu ditzaketen abantailak ere bai. Adibidez, babes ofizialeko, bigarren eskuko edo lehen eskuko erosketetan zergak desberdinak dira. Beraz, norberari egokitutako azterketa egiten diogu bezeroari, bere egoera ezagutu eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko asmoz. Adibide moduan, aholkularitza fiskalean arreta handia jartzen dugu.

Zer ulertu behar dugu aholkularitza fiskala esanda?

Salerosketarekin batera, etxebizitzaren eta titularraren ezaugarrien arabera, ordaindu beharreko zergak desberdinak dira. Kutxan horren gaineko informazio guztia ematen diegu, bezeroek eskura dituzten abantaila guztien berri izan dezaten.

Itziar Irazusta, Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Herritarren zerbitzura

Badira urtetxo batzuk Etxebizitza Zerbitzua antolatu zuela Kutxak. Itziar Irazusta, bestalde, 1999az geroztik dabil etxebizitzaren gaineko lanetan, eta orain Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria da. “Jendea oso galduta ikusten genuen etxebizitza erosi edo saldu behar zuenean, nora jo jakin gabe, eta egoera horri irtenbidea topatu guran antolatu genuen gure zerbitzua”, dio Itziarrek. Eta oso harrera ona egin zioten herritarrek zerbitzuari: “Gestioak egiteko orduan alboan izaten gaituzte, eskutik helduta joaten gara egin beharreko pauso guztietan, eta asko baloratzen dute hori”.

Erosteko orduan bakarrik ez, etxebizitzarekin zerikusia duen edozein gestio egiten laguntzen du Kutxako Etxebizitza Zerbitzuak: erosi, saldu, etxea erosteko aurreztu, etxea aurkitzen lagundu agentzia bitartez, eta beste hainbat. Gipuzkoan dituen edozein bulegotara joan eta eskatu besterik ez dute interesatuek: laguntzeko gertu aurkituko dituzte.

“Kutxan finantziazio mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua”

“Kutxan, banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila guztien berri emateko”

Horretaz gain, Haziendak etxebizitzaren erosketagatik deduzitzeko aukera ematen digu. 30.000€ baino gehiago buelta diezaguke urtero egiten dugun errenta aitorpenaren bitartez. Abantaila hauek aprobetxatzen has gaitezke etxea erosi baino 6 urte lehenagotik. Beraz, hurrengo urteetan etxea erosteko asmoa dutenek aukera izan dezakete deduzitzen hasteko.

Ondorioz, Kutxatik banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila hauen guztien berri emateko eta bezeroak operazio guztian gure laguntza eta babesa eduki dezan.

Jendeak finantziazioa behar izaten du. Zer nolako mailegu motak eskaintzen dituzue?

Gaur egun, produktua pertsonaren arabera diseinatzen dugu. Aukera ugari ditugu eta bezeroa da norberari egokien datorkion produktua aukeratzen duena. Interes mugikorretik interes finkorako maileguak eskaintzen ditugu. Lehenengo kasuan, maileguaren kuota aldatu egingo da merkatuaren interesen eboluzioaren arabera. Bigarren kasuan, berriz, hasieratik eta behin betiko, interesak finkoak izaten dira, eta merkatuko interesen gorabeherek ez dute eraginik izango bezeroak ordaintzen duen kuotan. Honetaz gain, mailegu mistoak ere eskaintzen ditugu, interes finko eta mugikorren konbinaketa eginez. Era honetan, interesen igoeren aurrean, bezeroa babestuta geratzen da.

Interesatuta dauden pertsonak nola jar daitezke harremanetan zuekin ?

Zerbitzua interesatu guztien eskura jartzen dugu gure bulegoen bitartez; gaur egun, 120 dira Gipuzkoan.

HIPOTEKA ziurra

interes-tasen igoerek ez dizute erasango zeuk aukeratutako epealdian
(gehienez 15 urtekoan).

Eta noizbait ordainketak egokitu beharra gertatuko balitzaizu, honako aukera hauek ere badituzu:

ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa murriztekoa.
amortizazioaren ordainketa denboraldi batez etetekoa.

ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

www.kutxa.net

kutxa
zure diruaren balio erantsia

■ ETXABETAN ETXEBIZITZAK

Etxabean etxebizitza egitea, beste aukera bat

M.A.

Ez da gero aukera aldrebesa etxabeak bizitoki bihurtzea. Horrekin konturatuta, Debagoieneko bost herritan arautzea erabaki zuten. Antzekoak dira bost udal ordenantzak; prezioaren gainean dituzte bakarrik berezitasunak.

Etxebizitzen eskaera haziz joan den neurrian, prezioek ere gora egin dute, izugarri gora. Ondorioz, beste irtenbide batzuk bilatu behar izan dituzte erosleek. Etxabeak etxebizitza bihurtzea beste aukera bat izan zitekeela pentsatu, eta hainbat udaletan arautzea erabaki zuten orain dela urte bi inguru, udal ordenantzak eginez.

DEBAGOIENEAN, BOST HERRITAN

Debagoienean, bost herrik dituzte etxabeak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantzak: Arrasatek, Oñatik, Bergarak, Aretxabaletak eta Eskoriatzak. Bizitzeko bete beharreko baldintzak berberak dituzte guztiek, baina salmenta prezioari dagokionean berezitasun garrantzitsua daukate Aretxabaletakoek eta Bergarakoek.

Arrasatek egin zuen lehenengoa, 2003an. Bi urterako egin zuen, eta aurten berrikustea tokatzen zaio. Gainera, baldintza bat ezarri zuen: 100 etxabe baino gehiago ezin izango zirela etxebizitza bihurtu. Bi urtean 42 egin dituzte, baina oraindik badute gehiago egiteko aukera arrasatearrek.

Oñatin eta Eskoriatzan, Arrasatekoaren oso antzeko ordenantza dute. Oñatin, gainera, ordenantza egin aurretik dagoeneko 10 bat etxebizitza zeuden eginda etxabetan, eta ostean, gutxiago egin dituzte, bete behar dituzten baldintzen ondorioz.

M.A.

Arrasaten 42 etxabe egin dituzte etxebizitza; ordenantza daukaten gainerako lau herrietan, ostera, oso gutxi.

Arrasaten 100 etxabe bihur daitezke etxebizitza, eta 42 egin dituzte

Aretxabaletan eta Bergaran, salmenta prezio altuena Udalak ezartzen du

Bergarako Udalak zozketa bidez banatzen ditu etxabeak erosi gura dutenen artean

ETXABEEK BETE BEHARREKO BALDINTZA NAGUSIAK

Gutxienez behar duen azalera
Etxebizitzak gutxienez 40 metro koadro izan behar ditu, eta honako gelak: sukaldea, 6 metro koadrokoa; egongela-jantokia, 12koa; birendako logela, 10ekoa; bainugela, komun, konketa eta dutxarekin, 3,5 metro koadrokoa; eta 1,10 metro zabal duen atartea.

Gelen argiztapen eta aireztapena
Gutxienez bi gelak eraikineko kanpoaldera begira izan beharko dute, tarte irekiak dituztela. Egongela, sukalde, jantoki eta logelek argiztapen naturaleko tarteak eta aireztatze tarteak behar dituzte kanpora zuzenean.

Sarbidea
Etxebizitza egin gura den etxabeak ataritik izan behar du sarrera, hau da, ez du zuzeneko sarbiderik izango bide publikotik.

Bizilagunen onespena
Etxabearen gainean bizi diren bizilagunen onespena derrigorrez behar da etxebizitza egiteko.

Prezioa
Aretxabaleta eta Bergarako ordenantzek salmenta prezioa finkatzen dute: babes ofizialekoak baino garestiagoak ezingo dute izan. Errentan ematen bada ere, Udalak berak ezarriko du prezioa. Gainera, 10 urtean ezin izango du jabeak edozein preziotan saldu etxebizitza.

Zozketa
Bergarako Udalak etxabe saltzaileen eta erosi gura dutenen artean zerrendak egiten ditu. Gero, zozketa egiten du bien artean, eta zozketa horren arabera banatzen du etxabea erosi gura dutenen artean.

ESPEKULAZIOARI AURRE EGIN

Aretxabaletako eta Bergarako Udalek etxabeekin espekulatzen hasteko arriskua zegoela pentsatu zuten. Hala, prezioaren gaineko baldintza sartzea erabaki zuten. Salmenta prezio altuena Udalak ezartzen du, eta babes ofizialeko etxebizitzena hartzen dute erreferentzia. Eta errentan ematea erabakiz gero, berdin. Etxebizitza hauek guztiak, gainera, 10 urtean ezin izango dituzte saldu edozein preziotan.

Bergarakoak beste berezitasun bat ere badauka. Udalak etxabeak erosi gura dituztenen eta saltzaileen zerrendak egiten ditu, eta zozketa bidez banatzen ditu etxabe horiek.

Bai Aretxabaletan, bai Bergaran, oso etxebizitza gutxi egin dituzte, prezioaren gaineko baldintzaren ondorioz.



"la Caixa"

Garibai z/g
ARRASATE

Etxebizitzaren finantzaketa
Etxebizitza eroso estreina ezazu

MIKEL LASA, ASEGURU ARTEKARITZA

“Etxebizitza ondo aseguratuta izateko gakoak eskura jartzen dizkizugu”

Gaur egun, etxebizitza asegurua beharrezkoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Dena den, asegurua kontratatu aurretik, hainbat faktore garrantzitsu kontuan hartu behar dira, baldin eta ezbeharren aurrean aseguruaren erabateko eraginkortasuna lortu nahi bada, ondasunei zein balio eman behar zaien jakin nahi badugu, eta abar.

Etxebizitza asegurua modu egokian eta bezeroaren beharretara egiteko, hainbat dira argitu behar diren zalantzak. Horiek denak argitzen laguntzen dizu Mikel Lasa aseguru-artekaritzak Axaren Hogar Seguro sortaren bitartez, egungo merkatu aseguratzailean dagoen eskaintzarik onenetarikoa baita. Etxebizitza aseguru honen arrakasta bezeroen ikuspegia kontuan hartuta egina izatean datza, uneoro aseguruaren garapenean eta sortzean parte hartuz euren iritzi eta iradokizunekin. Prozesu honek emaitza ezin hobeak ematen ditu, konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritutako prozesua da-eta. Ezaugarri horrek, gainera, aseguru polizak era errazean eta argian idatzita egotea ziurtatzen du.

Era berean, Axaren Hogar Seguro sortak aspektu guztiak hartzen ditu kontuan, etxebizitza mota bakoitzari egokitutako garantiarekin, bezeroak bere beharretara egokitutako asegurua aukeratzeko modua izan dezan. Urak, kristalek eta fenomeno atmosferikoek egindako kalteak dira estaldurarik ohikoenak. Eta sorpresak saihesteko, Axak berme zehatzak eskaintzen ditu, hala nola, Arrisku Oro Arte, Arrisku Oro Akzidentala, Zuhaitz eta Zuhaixkei kalteak edo Babes Juridikoa. Ildo beretik, Axak eskaintzen duen Lapurreta bermeak, esaterako, ondoko egoerak hartzen ditu bere baitan: ekintza bandalikoak, etxeko eta lorategiko altzariak, altzari profesionalak eta aseguratuta dauden bitxiak. Era berean, kalean gerta daitekeen diruaren, jantzien eta bestelako objektu pertsonalen lapurreta, kreditu txartelak bidegabe erabiltzea, eta giltzen eta sarrailen ordezkatzea edo galtzea hartzen ditu kontuan, etxebizitzan modu errazean sartzea saihesteko eta zuhurtziaz jokatzeko.

Axa Etxebizitza Asegurua kontratatzerakoan bezeroak lor ditzakeen beste abantaila batzuk familiarentzat eta etxebizitzarentzat eskaintzen diren doako urgentziazko zerbitzu ugariak dira. Izan ere, bezeroek etxebizitzaren zaintza eta babesa izango dute baldin eta, ezbeharren bat dela eta, etxebizitza babesik gabe gelditzen bada: urgentziazko iturgintza zerbitzua, instalakuntza finkoen apurketaren ondorioz sortutako kalteak konpontzeko; urgentziazko kristaleria, kanpoko itxiduran kristalen bat puskatzen bada eta etxebizitza fenomeno atmosferikoen aurrean babesik gabe gelditzen den kasuetarako; urgentziazko elektrizitatea, argindarra martxan jartzeko; eta urgentziazko sarrailagintza. Ildo beretik, polizaren titularra edo bikotea ezbehar bategatik mugitu ezinda geldituko balitz, etxeko lanetarako laguntzailea izango lukete. Gainera, errezeta duten botikak bidaliko zaizkie etxera.

Axaren Hogar Segurok eskaintzen dituen bestelako doako zerbitzuak hauexek dira: edozein hobekuntza edo erreforma egiteko profesionalak bidaltzea (Axak bere gain hartzen ditu desplazamendu eta

ETXEKO SEGURUA
Zure etxeak ematen dizun lasaitasunaz gozatu nahi baduzu
AXA-k zure etxea babesten duen seguru bat eskaintzen dizu, aukera hoberenekin.

AXA
SEGURU ETA INBERTSIOAK

Bizitzan Fidatu

“Aseguru mota honek bezeroak bere beharretara egokitutako asegurua egiteko aukera guztiak ematen ditu”

aurrekontu gastuak) eta lorezaintzari eta igerilekuaren mantenuari buruzko zalantzak argitzen dituen informazio zerbitzua. Telefono dei baten bitartez lorategiko landareen egoeraz galde dezakegu, izurrien aurrean zer egin, landareak ereiteko garaiaz edo zuhaitz eta zuhaixken inausketaz, igerilekuko uraren tratamenduaz, zein produktu kimiko erabili behar diren, erabileraren maiztasuna... Zerbitzu honetako telefono zenbakia ezbeharretarako edo bezeroari zuzendutako arreta zenbaki bera da. Zerbitzu hau urteko 365 egunetan eta 24 orduz egoten da martxan, aseguruari errentagarritasun handiena ateratzeko asmoz. Dei bakar batekin, Axaren Bezeroarentzako Arreta-zerbitzuak konpontzailerik eraginkorrenak bidaliko dizkizu, ur ihesek edota kristal apurketek sortzen dituzten egoera ezatseginak berehala konponduz.

Axaren Hogar Seguro gamak edozein etxebizitzatako beharrak asetzeko prestakuntza osoa dauka: etxebizitza tradizionalak, txalet atxikiak, independenteak, apartamentuak. Azken hauentzat, bereziki, produktu zehatza eskaintzen du: Hogar Seguro Tisket. Formula erraza eta ekonomikoa da, eta bere prezioa benetan lehiakorra da. Horretaz jabetzeko, ikusi ondoko adibidea:

90 metro koadro izango dituen etxebizitza berri baten inguruko adibidea:
- Kontinentea: 63.000 €
- Altzariak: 20.000 €
- Bitxiak: 1.200 €
- Prima osoa: 112,86 € urtean.

Prezio paregabea eskaintzeaz gain, aseguruaren estaldura ere halakoa da. Izan ere, urak, suak, leherketek, fenomeno atmosferikoek, kristalen apurketak, edo lapurretek egindako kalteen %100 estaltzen du.

Interesgarria da kontuan izatea, prezioaz gain, kontratazio erraza eskaintzen duela eta aseguruaren polizari dagokion dokumentazio guztia momentuan jasotzen duela bezeroak. Zentzu horretan, oso egokia da hipoteka-kredituak dituzten pertsonentzat.

MIKEL LASA, S.A.
ASEGURU ARTEKARITZA

Arriskurik gabe apustu egin

Otalora Lizentziaduna, 5 behea - 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel. 943712454 - Fax 943771074
Mail: mikellasa@mikellasa.com - Web: www.mikellasa.com

■ VISESA SOZIETATE PUBLIKOA

Visesa sustatzaileak 1.902 etxe bideratuko ditu aurten

M. A.

Eusko Jaurlaritzak Visesa sozietate publikoaren bitartez sustatzen ditu etxebizitzak Euskal Autonomia Erkidegoan. Urtean 2.000 inguru bideratzen ditu, tartean Bizigune programakoak. Aurten, gainera, aurrez finkatutako preziodun etxebizitzak eskaintzen hasiko da.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Visesa sozietate publikoarekin eta Orubide eta Alokabide lur eta alokairu operatzaileekin egiten du lan etxebizitza denon eskura egon dadin. Hala, 415 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute aurtengo, Javier Dean etxebizitza sailburuordearen esanetan.

AURTEN, 1.902 ETXEBIZITZA

Visesa ez da Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sustatzailea bakarrik, etxebizitza politika aurrera eroaten duen bitartekaria baizik. Hala, babes ofizialeko etxebizitzekin egiten duten iruzurraren aurka egiteko, edo Bizigune programaren bitartez hutsik dauden etxeak merkatura ateratzeko bidea da. Aurten, gainera, prezioa finkatuta daukaten etxebizitzak bultzatzen hasiko da. Etxe horiek ezingo dute babes ofizialekoak baino %30 garestiagoak izan.

Aurten, babestutako 1.902 etxebizitza egitea dauka aurreikusita Visesa sozietateak. Sortu zenetik hona 4.600 eman ditu, eta beste 2.700 eraikitzen dabiltza. Hortaz, guztira 12.000 etxebizitza baino gehiago bultzatu ditu EAEn.

Hutsik dauden etxebizitzak alokatzen ditu merkatuan dabilen prezioa ordainduta

Etxebizitzak baliabide eskaseko familiei ematen dizkie errentan

BIZIGUNE PROGRAMA

Etxebizitza sailak antolatutako Bizigune programa ere kudeatzen du Visesak. Hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzen laguntzen du Bizigunek, eta urte eta erdian 2.000 etxebizitza baino gehiago atera ditu.

Hutsik dauden etxebizitzak jabeari alokatzen dizkio Visesak, eta merkatuan dabilen prezioa ordaintzen dio. Visesak, gero, baliabide eskasak dituzten familia eta bikote gazteei ematen dizkie errentan, eta diru-sarrera gordinen %30a baino gutxiago kobratzen die. Hain zuzen, errentariek ordaintzen duten batezbestekoa 236 euro da hilean. Jabeek, ostera, 521 euro jasotzen dute batez beste. Jabeak jasotzen duen diruaren eta alokairua ordaintzen dutenen artean sortzen den diferentzia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak berak ordaintzen du.

Etxebizitzen jabeak oso pozik daude programarekin; izan ere, errenta Visesa sozietate publikoak ordaintzeak segurtasun handia ematen die. Gainera, badakite edozeini alokatuta ere utzitako egoera berean itzuliko dietela etxea.

Denbora luzean hutsik egon direlako, etxebizitza batzuk berritu beharrean egon daitezke. Halako kasuetan, Visesa arduratzen da zaharberritze lanez bizitzeko moduan jarri arte, eta gero, poliki-poliki, jabeari kobratzen dio, jaso behar duen errentatik kenduta. Horrela, inolako interesik ordaindu barik berritu dezake etxea jabeak.

Alokairuko etxebizitza horiek eskatzeko, Etxebideko Bizigune sailean eman behar dute izena interesatuek.

Arrasaten, 200 etxebizitza

Zerrajera egondako lurretan, Debagoieneko Eskualde Ospitalearen alboan, babes ofizialeko etxebizitzak egingo dituzte. 200 egingo ditu Eusko Jaurlaritzak; horietatik 100 salgai jarriko ditu, eta beste 100 errentan emateko izango dira. Alokabide operatzaileak kudeatuko ditu, hain zuzen, azken 100 etxebizitza horiek. Etxebizitza horien guztien zozketa dagoeneko eginda dauka Etxebidek arrasatearren artean. 200 horiez gain, beste horrenbeste etxebizitza egingo dituzte aurrerago; horiek, baina, Udalaren eskuetan geratuko dira.

Etxebizitzak zeinek egin erabakita dauka dagoeneko Eusko Jaurlaritzak, eta lanak laster hasiko dituzte, udan edo udazkenean. Izan ere, atzerapen txiki bat izan dute lanek Udalak aparkalekuak jartzeko hirugarren sotoa egitea erabaki duelako. Aparkalekuak inguru horretako bizilagunen eta ospitalera doazen gaixo eta langileen eskaerak aseko ditu.

Zerrajera egon zen alderdian, Ihobek, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, azterketa sakona egin zuen lurren kutsadura zelakoa zen jakiteko. Visesak kudeatuko duen lursailean ez zuten aparteko kutsadurarik aurkitu, beharbada Zerrajerako aparkalekua egon zelako bertan.

ESALBI S.L
PROMOZIOAK
ANTZUOLA ERDIALDEAN
Kalitatezko etxebizitza berriak: logela bat, bi logela eta hiru logelatakoak.
Dagoeneko finantziazioa jasota.
Obrak berehala hasiko dira.
Informazioa eta salmenta: 629 414 363
Francisco Ibarra 14, behea
48200 DURANGO (Bizkaia)

Elgetako Udala
Mendizaleen plaza 1
Tel.: 943 76 80 22
ELGETA
www.elgeta.org

visesa

>>B.O.eko 13.000 etxebizitza

Euskadin etxebizitza zure eskura jartzen dugu

800 milioi eurotik gorako inbertsioa zure bizi-kalitatea hobetzeko.

4.598
Eraiki ditugunak

5.500
Eraikiko ditugunak

2.705
Eraikitzen ari garenak

AENOR
Empresa Registrada
ER-0481/2/00

CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM

aurrera doan herria
un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

banak importa TIENDAS

banak importa

BANAK IMPORTA ARRASATE

Orain, gehien inporta zaizkizun altzari eta osagarriak eskura ditzakezu

tienda en tienda

los nec esa rios

BANAK IMPORTA ARRASATE - Zerkaosteta 3 - 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 10 11

Sofaleku

Eskaintza **zabalagoa** zure esku erakustoki **berrian**

HEMEN BADUZU NON AUKERATU!

grupo amuebladora mondragonesa

SOFALEKU
Zigarrola 1 (1go pabilioia)
Arrasate
- **Tel.: 943 79 15 03**
- **Faxa: 943 79 14 89**

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a

Kultura eta aisialdia

Maitzaren 27tik ekainaren 3ra

DANTZA APURTZAILEA

BREAKDANCEA EGITEN DUEN TALDE BAT DAGO DEBAGOIENEAN

NEW YORK HIRIAN SORTU ZEN, HIP-HOPAREN KULTURAREN BARNE, ETA ORAIN DELA URTE BATZUETATIK HONA DEBAGOIENEAN ERE IKUS DEZAKEGU: BREAKDANCEA DA. IBARREAN EZ DITU ORAINDIK ZALE ASKO, BAINA BERGARAKO BOSKOTE GAZTE BATEK BERE EGIN DU KULTURA ETA DANTZA HORI, ETA BESTE HERRI BATZUETAN ERE BADAUDE ZENBAIT DANTZARI /15

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIAK: ENEKO AZKARATE

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta

Eguzkitza erretegia

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Berezitasunak
- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE/ 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita

Unzueta jatetxea

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

KULTURAK/ BREAKDANCEA ETA HIP-HOPA BIZI DUTENAK

Gurean ere badaude B Boysak

BREAKDANCEA EZ DAGO ORAINDIK HEDATUEGI DEBAGOIENEAN, BAINA BADAUDE ZALE BATZUK. TALDE SENDOENA BERGARAN DAGO

LEIRE KORTABARRIA

Ez daude asko, baina daudenek leial jarraitzen diote euren zaletasunari, breakdanceari; dantzari horiei B Boys deitzen zaie ingelesez. Talde sendoena Bergaran dago eta lau anai eta lagun batek osatzen dute. Nagusienak orain lau urte hasi ziren, eta ordudanik ia egunero ibiltzen dira.

Lau anaik eta ia-ia bosgarren anaia duten lagun batek –txikitandik ezagutzen baitute elkar– osatzen dute Bergarako breakdancearen jarraitzaile taldeak: "Ez dugu izenik, talde moduan; garenak gara eta hementxe dihardugu", diote xalotasunez. Hala ere, gaineratzen dute Zumarraga eta Legazpiko beste dantzari batzuekin "talde antzeko bat" osatzen dutela: 2 Fcrew Floor Fighters (ingelesez, *lurreko borrokalariak* bezala itzul daiteke).

Breakdancea hip-hoparen kulturaren barne dago eta idatzi gabeko arau edo ohitura batzuk daude, eta horietako asko bere egiten ditu bergarar boskoteak. Hala, ezizena erabiltzen dute.: *Mhekoy*,(21 urte) *H. Voraz* (20), *Lioner* (18), *Noisy* (16) eta *Sacon* (14) dira. Era berean, ez dute dantza bakarrik egiten; dagozkion arropak eramaten dituzte, eta kultura horrekin lotuta doazen beste jarduera batzuk egiten dituzte: hala, grafitiak marrazten dituzte taldeko batzuek.

Boskote hau breakdance talde bakarra da Debagoienean. Izan ere, dantza hori ez dago gurean oso hedatua, eta jarraitzaileek ia ez dute elkar ezagutzen. Bergarar hauek badakite besteren batzuk badaudela: "Inoiz ibili izan gara Oñatin bizi den 16 urteko neska batekin; eta entzun dugu Aretxabaletan badagoela bateren bat, baina ez dugu hartu-emanik".

ENEKO AZKARATE

Ezkerretik eskumara, *Sacon, Lioner, Mhekoy, H. Voraz* eta *Noisy*.

BERGARARREK SARRI IKUSITA

Gazte hauek lotsa alde batera utzita dute, Bergarako Miguel Altuna ikastetxeko atarian ibiltzen dira eta dantzan ia egunero; oinezko ugari pasatzen dira handik, eta ziur bergarar gehienek inoiz ikusi izan dituztela. Hala ere, gutxik jakingo dute taldearen historia: *Mhekoy* hasi zen breakdancea egiten, orain lau bat urte, Zumarragako lagun batzuei ikusita; gero, haren anaiak konbentzitu zituen, *H. Voraz* lehenengo eta *Noisy* gero. Txikiena, *Sacon*, orain hilabete hasi zen. "Malgutasun handia du", diote anaiek. Bosgarren kidea, *Lioner,* betidanik dute lagun, baina ez zekiten berak ere bere kontura dantza egiten zuela. Halako baten, anaiak ikusi zituen dantzan eta berak bat egin zuen.

EUREN KABUZ IKASITAKOAK

Hasieran, zaletasun soila zen; hasi ere, ez ziren aparteko asmoekin hasi. "*Mhekoy* Zumarragako lagunekin hasi zen, baina inork ez zekien breakdance egiten; Interneteko bideoak ikusten ikasi zuten, euren kabuz", azaltzen dute taldekoek. Lau urteotan, nagusienek asko ikasi dutela erakusteko gai dira edozein unetan: mugimendu eta koreografia ikusgarriak egiten dituzte. Telebistan edo Interneten ikusi izan ditugun ariketa akrobatikoak bezalakoak dira: buru gainean emandako birak edo bizkar gainekoak, errotak… Sumatzen zaizkie, bai, entrenamendu orduak, eta miresmena sortzen du jakiteak itzulipurdi horiek bideoekin bakarrik ikasi dituztela. Izan ere, buru-belarri ibiltzen dira euren zaletasunaren atzetik: Durangoko aretoko breakdance lehiaketara joan ziren, ikusle moduan, eta lehiaketa ondoren edozeinek parte hartzeko moduko jardunaldietara; eta Debagoienetik kanpo zaletasun handiagoa dagoenez, leku bateko eta besteko B Boysekin ibiltzen dira: Zumarragan, Ordizian…

Horrez gain, breakdancearen kultura interesatzen zaie: dagozkion txandalak eramaten dituzte –"mahuka luzekoak komeni dira, bestela irrist egiterakoan erre egin zaitezke", diote– eta hip-hop diskoak erosten dituzte ahal dutenean: Doble V, Nach, El Chojin edo Hablando en Plata dira euren gogokoenak.

Dezente lortu dute, baina Bergarako talde honek apaltasunez egiten du berba bere buruaz. Hala ere, egun baten zaletasun soil moduan hasi zena zerbait gehiago bilakatu da: "Baditugu gure asmoak. Hala, beti saiatzen gara mugimendu berriak asmatzen. Eta nik", dio *H. Voraz*-ek, "beti daramat aldean koadernoa eta boligrafoa, abestien letrak-eta apuntatzen joateko". Beharbada sorpresaren bat emango digute bergarar hauek etorkizunean.

Harrez geroztik, egunero ordu mordoxka bat eskaintzen diote breakdanceari: "Hasieran, etxe inguruko parkean ibiltzen ginen, nahiz eta euria egin", diote anaia gazteenek; "orain, afalostean irteten gara, batez ere bero handia egiten badu, egunotan bezala; edo 18:30etik 23:00etara bitartean, eta beranduago afaltzen dugu".

Debagoieneko ikusleak Durangon

Orain bi aste jokatu zuten Durangon Logela Multimediak antolatutako aretoko breakdance lehiaketa. Frantzia, Italia, Alemania eta Espainiako taldeak lehiatu ziren, besteak beste. Laugarren aldia zuen, eta ekimenaren helburua da breakdancea inguru honetan zabaltzea. Horretarako ere, breakdance ikastaroak antolatzen ditu Logelak. Hori da breakdance eta hip-hop kulturaren gure erreferentzia gertukoena, ibarrean oraindik zaletasun gutxi dagoelako.

Logelako antolatzaileetako batek, Imanolek, dioskunez, Debagoienetik joaten dira ikusle batzuk: "Beste urte batzuetan gehiago etortzen dira; aurten, hainbat jairekin parean tokatu delako gutxiago etorri dira". Ikastarorako ere, guretik deiren bat edo beste jaso izan dute, informazio eske.

Durangaldean, behintzat, zaletasuna handiagoa da: "Badago kultura honekiko irrika. Lehiaketaren DVDa ateratzen dugu eta harrera ona izaten du", dio Logelak.

Historia pixka bat

Breakdancea 1969 inguruan hasi zen mundu osoan ezagun egiten, James Brown musikariaren eskutik edo, hobe esanda, hankatik: Good Foot izeneko barietatea egin zuen ezagun. Baina ordurako, breakdancea egiten zuten dagoeneko New York hiriko ume askok. Hip-hoparen kulturaren barne zegoen. Orduz geroztik, zenbait aldaketa izan ditu, estilo hau eta bestea bereizten dira eta sofistikatu egin da.

80ko hamarkadan, breakdancea New Yorkeko taldeen arteko lehia bezala erabiltzen zen: lehiaketek balio zuten talde bat besteari nagusitzeko auzo barruan. Gaur egun, ikuskizun moduan da ezagunago mundu osoan.

Mai. 27-Eka. 3

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

BERGARA

► **UNED-Bergarako** udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 4ra bitartean. Laugarren urtez antolatzen dituzte, eta aurten, 21 ikastaro daude aukeran, gizarte zientzien, osasunaren eta psikopedagogoaren arloetan. Matrikula egin daiteke Bergaran duten egoitzan, seminarioan, edo *www.uned.es/ca-bergara* webgunean.

OÑATI

► **Musika eskolan** matrikula egiteko epea zabalik egongo da ekainaren 1etik 15era bitartean. Horretarako, joan euren bulegora 18:00etatik 20:00etara bitartean.

ANTZERKIA

ARRASATE

► ***Más que palabras*** antzezlana egingo dute Oihulari Klown taldeko Virginia Imaz eta Txefo Rodriguezek gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ESKORIATZA

► **Pep Bruno** Guadalajarako ipuin kontatzaileak helduendako emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean. Informazio gehiago dago *www.pepbruno.com* webgunean.

IKUSKIZUNAK

BERGARA

► **Argazkigintza estereostopiko (3D) proiekzioa** egingo du Jose Luis Feo argazkilariak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 20:30ean.

OÑATI

► **I. Oñatin Txokolatea Bizirik jardunaldiak** antolatu dituzte Klaxk Txokolateroen Kofradiak, Udalak eta Zahorrek. Bihar, zapatua, izango da Unibertsitatean, 17:00etan. Klaxk elkartea aurkeztuko dute; gero, *Oñatiko Txokolateroak* delako mahai ingurua izango da; azkenik, txokolate-dastatzea izango da, eta kakaoaren jatorriak aztertuko dituzte. Bukatzeko, Unibertsitateko kaperan, Oñatiko Txokolategileen Mandamentuen zina egingo dute.

MUSIKA

ARRASATE

► **The Reverendos** taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan. Rock-and-roll eta retro blues estilokoak dira.

► **THC (Iruña)** taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 01:00etan. Sarrera 6 euro da. 03:00etan, Balza eta Ene! (Kogollo Crew) disko jartzaileek girotuko dute gaua.

BERGARA

► **Morodo, Shotta eta Urbano Sapiens** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

►**Dirties (Elorrio) eta Ameba (Bera)** taldeen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Kerobia, Matxura eta Azkaiter Pelox** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan. Jardun euskara elkarteak antolatu du.

► **Black Label Society Mafia eta Meldrum** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. 24 euro da, 22 aldez aurretik erosita.

ELGETA

► **Karidadeko Benta** taldeak *Amore, amore* diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

OÑATI

► **Kolpe-k (Uztaritze) eta Malenkonia (Oñati)** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean, *Iparraldea Oñatin* jaialdiaren barne. Sarrera, 3 euro.

DEIAK

ARETXABALETA

► ***Euskal sukaldaritzaren antropologia*** liburua aurkeztuko du Edorta Agirrek eguenean, ekainak 2, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi elkarteak antolatuta.

ARRASATE

► **Juan Artzamendi musikariari omenaldia** egingo diote. Bihar, zapatua, Musika Eskolako Bandak eta Goikobaluk kontzertua egingo dute Monterronen, 13:00etan. 20:00etan, Musika Eskolako Orkestrak eta Goikobaluk emanaldia egingo dute Amaia antzokian, Juanen alaba Beatrizek zuzenduta. Domekan, elizako abesbatzak meza abestua egingo du, 11:00etan. Zapatuko kontzerturako sarreren salmenta izango da gaur, egubakoitza, leihatilan, 18:00-20:00.

► ***Telebistaren eragina haurren garapenean*** izeneko hitzaldia izango da eguenean, hilak 2, San Viator Txiki gunean, 15:00-16:15, aiton-amona eta zaintzaileendako. Arizmendiko Guraso Eskolak antolatzen du.

► **Musika eta gazteria taldeendako dirulaguntzak** deitu ditu Udalak. Eskariak egiteko mugaeguna da ekainaren 10a.

► **Pobrezia Zero kanpaina** aurkezteko hitzaldia egingo dute eguaztenean, ekainak 1, San Andresko parrokiaren lokaletan (Bañez Dk. 1), 19:00etan.

DEBAGOIENA

► **14. Debagoieneko Edadetuen Kirol Jaia** egingo dute hilaren 3an, egubakoitza, Oñatin, Mankomunitateak antolatuta, 15:15ean; 17:30ean, opari banaketa, luntxa eta dantzaldia izango dira. Izenemate epea zabalik dago kirol zerbitzuetan maiatzaren 30a arte.

► **Apartheid politikoa** salatzeko manifestazioa egingo dute herri plataformek bihar, zapatua, Oñatiko plazatik abiatuta, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Zinema eta ondorengo solasaldia** izango dira gaur, egubakoitza, Amuska emakume taldearekin. *Las chicas del calendario* filma ikusi eta berriketaldia egingo dute gero Ana Larrieta psikologoarekin, kultura etxean, 18:30ean.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

Galarza V - Nalda III / Larralde - Apeztegia

•

Eugi - Barriola / Gonzalez - Eulate

•

Berraondo - Arizmendi / Baleztena - Zubieta

aspepelota.com

- **Eguna:** igandea, maiatzaren 29a.
- **Ordua:** 17.00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.



► JAIALDIAK

IPARRALDEA OÑATIN JAIA ETA GORPUZTI PROZESIOA ASTEBURUAN

Iparraldea Oñatin jaialdiaren egun handia izango da bihar, zapatua. 11:30ean, Ipar eta Hegoaldeko janari-dastatzea Herriko Plazan; 12:30ean, barrikada sinbolikoa Unibertsitate aurrean, Iparraldetik datozenei harrera egiteko; 13:00etan, jaiaren hasiera Herriko Plazan: txalapartariek, bertsolariek, txistulariek, atabalariek… alaituko dituzte plazako txoko guztiak, eta goiz osoan, Oñatiko zein Iparraldeko folklore taldeek kalejira egingo dute. Jaiak arratsaldean jarraituko du, Beltzeria & Cia. ikuskizunarekin, gaztelekuan, 19:00etan, eta gauean, Hiru Trukuren, Maddi Oihenarten eta Etxartarren (argazkian) kontzertuarekin, kiroldegian, 22:30ean. Jaia izango da nagusi asteburu osoan, Gorpuzti prozesioa domekan izango da eta.

Non: Oñatiko plazan eta kaleetan. **Noiz:** bihar, zapatua, 11:30ean hasita; 19:00etan, ikuskizuna; 22:30ean, musika.

► **Jaietako danborradako** entseguak ekainaren 2an, eguena, hasiko dira frontoian, 21:30ean. Jendea behar dute, eta izena emateko epea zabalik dago kultura etxean.

LEHIAKETAK

DEBAGOIENA

► **II. Euskal Herriko grafiti lehiaketa** deitu du Topaguneak 15 urtetik gorakoendako. Bakarka edo taldeka parte har daiteke, teknika eta gai librearekin; hitzik erabiltzen bada, euskaraz izan behar du. Zirriborroak bidaltzeko epea uztailaren 1era arte izango da, honako helbidera: Topagunea; Arlozabal kalea, 8 bis-1.C; 48.220 Abadiño (Bizkaia). Lehiaketa uztailaren 16an izango da Getxon.

ESKORIATZA

► **Jaietako esaldi lehiaketa** deitu du Udalak. Jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko, ligatzeko, euskara eta gazteak uztartzeko… opatzeko esaldiak hartuko dituzte. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek parte har dezakete, bakarka edo taldeka. Gura beste esaldi utz daitezke. Udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetako kutxetan utzi behar dira ekainaren 5a baino lehen.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **Jardun euskara elkarteak** urte amaierako jaialdia egingo du gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 19:00etan. Bestalde, bihar, zapatua, *Gaur egungo egoeraren diagnostikoa eta hurrengo urteetarako helburuak eta erronkak* delako mintegia egingo dute kultura etxean, 10:00etan, eta bazkaria, 14:30ean. Euskara elkarte horren 15. urteurreneko ospakizunak dira.

IKASTAROAK

ESKORIATZA

► **Argazki-kamera digitalaren** inguruko ikastaroa antolatu du Udal Kultura Sailak ekainaren 11n, zapatua, 10:00-13:00 ordutegian. Izenematea zabalik dago hilaren 7ra arte, kultura etxean. 5 euro da matrikula.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Hotel Rwanda
Egubakoitza: 22:30.

Buscando a Nemo
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Algo en común
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Cinco chicos y esto
Domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

El fuego de la venganza
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Ez dago emanaldirik.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Star Wars, episodio 3
Egubakoitza: 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:45, 22:30.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Sahara
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Sahara
17:30, 20:00, 22:30.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:45, 22:30.

Steamboy
17:30, 20:00, 22:30.

El gran golpe
17:30, 20:00, 22:30.

Una hija diferente
17:30, 20:00, 22:30.

Un rey en La Habana
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Star wars, episodio 3
17:10, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:10, 19:55, 22:30.

Frágil
17:10, 19:55, 22:30.

The eye 2
17:30, 20:15, 22:45.

Un rey en La Habana
17:30, 20:15, 22:45.

Hierro 3
17:30, 20:15, 22:45.

Million dollar baby
17:10, 19:55, 22:30.
17:20, 19:50, 22:35.

Hechizada
17:30.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:15, 22:45.

Belleza prohibida
17:20, 20:00, 22:35.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

90 millas
17:30, 20:00, 22:30.

Omagh
18:00, 20:15, 22:30.

Millones
18:00, 20:15, 22:30.

Arsene Lupin
20:00.

La última primavera
17:30, 20:00, 22:30.

Fernando y Carolina
18:00, 20:15, 22:30.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

Mr. Batignole
17:30, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Un rey en La Habana
16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 01:00.

Robots
17:00.

El último golpe
20:05, 22:30, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:05, 22:45, 01:00.

Cosas que hacer antes de los 30
16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 01:00.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Un canguro superduro
16:00, 18:05.

Be cool
16:30, 18:05.

Million dollar baby
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:05.

Habana blues
19:15, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Justa venganza
19:45, 22:05, 00:25.

La intérprete
12:15, 16:45, 19:15, 22:00, 00:40.

El reino de los cielos
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:35.

Million dollar baby
20:45, 23:45.

The eye 2
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

El gran golpe
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Heffalump
12:15, 16:05, 17:55.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:45, 18:45.

Bob esponja
12:15, 16:20, 18:20.

Un canguro superduro
12:15, 16:25, 18:25.

In good company
20:25, 22:40, 00:50.

Saw
20:20, 22:35, 00:50.

Star wars, episodio 3
12:15, 15:30, 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

Robots
12:15, 16:10, 18:10.

The ring 2
20:10, 22:25, 00:45.

Un rey en La Habana
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

11:14, destino fatal
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:05, 01:00.

El gran golpe
12:10, 17:15.

Robots
12:10, 17:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:05, 19:05, 22:05, 01:00.

Tapas
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 01:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:00.

The eye 2
12:00, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 16:30, 19:00, 19:20, 22:00, 22:30, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:15, 22:20, 00:30.

No sos vos, soy yo
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Soñando, soñando, triunfe patinando
12:15, 16:00, 18:05.

Heffalump
12:20, 16:30.

Reinas
18:00, 20:10, 22:25, 00:45.

La maldición
20:05, 22:15, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Buscando a Nemo: ●●●● / ***Million dollar baby:*** ●●●● / ***La intérprete:*** ●●● / ***Belleza prohibida:*** ●● / ***Reinas:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

TAPAS

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Jose Corbacho eta Juan Cruz.
AKTOREAK: Angel de Andres, Elvira Minguez, Maria Galiana.

Jose Corbachok ikuskizunaren munduan urte dezente badaramatza ere —La Cubana antzerki konpainian aritutakoa da—, azken bolada honetan nahiko ezaguna egin da telebistan: *Homo zapping* umore saio dibertigarriaren egilea da eta Buenafuenteren saioan ere parte hartzen du. Corbachoren lana ezagutzen duenak badaki bere umorearen ezaugarriak nolakoak diren: eskatologikoa, lotsagabea eta nahiko eroa.

Telebistan egindako lana buruan dugularik, pentsa dezakegu gidoilari eta zuzendari lanak betetzen dituen lehenengo filmean goian aipatutako ezaugarriak agertuko direla eta *Torrente* eta zinema espainiarrean hainbat alditan agertzen diren antzeko pertsonaiekin zerikusi handia izango duela, baina ez da horrela. *Tapas*-ek Hospitaleten gertatzen diren hainbat istorio azaltzen dizkigu. Hain justu ere: emaztea ihes egiten dion tabernari despotarena, emakume heldu batek bera baino gazteagoa den mutil batekin dituen harremanenak, eta gizonaren azken egunei aurre egin nahian ari den bikote zahar baten istorioa.

Tapas-en badago umorearentzako tartea, baina bere ezaugarri nagusia pertsonaiengana hurbiltzerakoan erakusten duen samurtasuna eta maitasuna da. Komedia sentimentala denez, pertsonaien sentimenduak (batzuk kontraesankorrak) azaldu nahi ditu, eta hori ondo lortzen du. Kontatzen diren istorioak nahiko xumeak dira, halako istorioak sarritan zinemak tratatu izan ditu, baina horiei ateratzen zaien xarman eta epeltasunean datza bere indarra. Hiru istorioak ondo daude, agian senar-emazte zaharrenak, Leo McCareyren unibertsora hurbildu nahi du eta ez du beste bien eraginkortasuna lortzen. Angel de Andresek ederki interpretatzen duen istorioan umorearentzako aukera handiagoa du, eta hiruretatik istorio onenean, Elvira Minguezek eta Ruben Otxandianok lan bikaina egiten dute euren pertsonaien gizatasuna azaleratzerakoan: elkarrenganako erakarpena, emakumearen zalantzak eta mutikoaren maitemina ondo islatuak daude. Horrela, topikoetan erortzeko arriskua zuen istorio honek berezko nortasuna lortzen du.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Zubieta 70 m². Ondo.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 82 m². Garajea.
• Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
• Masterreka 70 m². Oso ondo.
• Duplexa Bolun 90 m².
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza berri.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
•Erdialdea 90 m². Berrizteko
•Erdialdea 57 m². Oso ondo.
•Duplexa, erdialdean 116 m².
•Masterreka 69m². Oso ondo dago.
•Martoko 60 m². Berritzeko.
•Elorregi 64 m². Berritzeko.
•Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
•Duplexa, erdialdean 170 m².
•Aranerreka 82 m². Garajea.
•San Pedro 110 m². Berritzeko.
•Txaleta 300 m². Berria.
ANTZUOLA:
•Bustinzuri 88 m². Berria.
•11 etxebizitza berri.
SORALUZE:
•Ezozi 83 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

DEBAGOIENA
SUKALDARIA BEHAR DA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIEN SALTOKI BATEN GOIZEZ LAN EGITEKO. 675 70 82 35

ARAMAIO
SUKALDE LAGUNTZAILEA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA JATETXE BATEAN. 945 44 50 86

BERGARA
ASEGINOLAZA TAILERRAK AUTOEN MARGOLARIA BEHAR DU. 943 76 12 50

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO. 652 70 82 46

BERGARA
AVENIDA TABERNAK ZERBITZARIAK BEHAR DITU ASTE BUKAERETARAKO. 943 76 20 46

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN JATETXEAN LAN EGITEKO. 943 71 43 45

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

LORAMENDI KIROLAK
NESKA EUSKALDUNA BEHAR DA DENDAN LAN EGITEKO. DATUAK EKARRI ARRASATEKO SAN ANDRESKO DENDARA.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Txaleta salgai. 180m². Garaje bikoitza. Bost logela. 50m²-ko aterpea. Lorategia. 609 48 99 58.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

Bergara. Berritua. 70 metro koadro. Bi logela. Oso eguzkitsua. 609 71 41 02.

Bergara. Ibarra kalea. 58 m². Bi logela, bainugela, egongela. Sotoa. Leiho guztiak kanpoaldera. Guztiz berritua dago. 943 76 11 58.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Unibertsitatetik gertu. Lau logela, egongela eta bi komun. Oso ondo dago. 800 euro. 678 53 82 48.

Bareges. Etxebizitza emango nuke errentan Frantziako Pirinioetan, Bareges herrian. 679 76 11 57.

Benidorm. Etxebizitza Levante hondartzan. Bi logela. Aire girotua, garajea eta igerilekua. 666 67 06 94.

Ezkarai. Apartamentua alokagai. 685 72 16 98.

Peñiscola. Apartamentua errentan uztailean, abuztuan eta irailean. Hondartzatik 50 metrora. Igerileku pribatua eta garajea ditu. 943 79 48 82.

Vera (Almeria). Apartamentua ematen da errentan naturista gune baten. Hondartza naturista. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Etxebizitza txiki bat alokatu gura dugun bi neska langile gara. 615 72 33 34 edo 606 92 59 33.

Oñati. Etxebizitza errentan hartu nahiko nuke. Bi lagunendako modukoa. 943 78 11 96.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela alokatzen da, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 615 72 15 17.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Santa Teresa auzoa. Itxia. 600 05 19 00.

202. EROSI

Arrasate. Garaje itxia erosiko nuke. 943 79 33 93.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 17 m²-ko lokala ematen dut errentan, kioskoa jartzeko. 943 79 37 00.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da goizero bi orduz etxeko lanak egiteko. 21:00etatik 22:00etara deitu. 676 46 99 76.

Arrasate. Etxeko lanak egiteko esperientziadun emakume bat behar da. 619 93 34 38.

402. ESKAERAK

Ekonomian lizentziaduna gertu administrazioan, edo ekonomia alorreko antzeko lanetan jarduteko. Marisa. 657 70 03 22.

Neska gaztea gertu udan lan egiteko. 666 16 71 37.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi 100 2.3E autoa salgai, gasolinazkoa. Oso ondo dago. Beti gidari bera izan du. Osagarriak. 3.600 euro. 629 42 36 54.

Audi S3ren hagunak salgai. Seat eta Volkswagenendako ere balio dute. 225-45-17 neurriak dituzte gurpil-azalek. 650 euro, negoziatzeko. 665 74 07 72.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. 1998koa. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Ondo dago. 652 77 71 08.

Honda CRF 450 R-2003 mororra salgai. Ondo zaindua. Prezio ona. 625 70 43 20.

Peugeot 309 diesel autoa. 900 euro. 656 74 80 47.

Renault Clio. SS-AP. 1.000 euro. 656 72 04 31.

Yamaha Aerox motorra. 450 euro. Egoera onean. 667 56 13 24.

Yamaha WR 250F 4T. BRR matrikuladuna. 2002koa. Egoera oso onean. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak. Spaniel arrazakoak. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamera. Olympus III 115Kit. Eta Sony Ericsson Z600 Vodafone Live telefonoa. 627 62 53 30.

Karabana salgai Nojako hondartzako kanpinean. Bost lagunendakoa. 685 70 60 15.

Karabana salgai. Lau pertsonarendakoa. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 79 33 91 edo 609 40 44 97.

Ume-kotxea. Silver-cross. 200 euro. 943 74 01 94.

805. TRUKATU

Arrasate. Baldintza oneko baratza eskaintzen dut, etxe ingurua zaintzeko lorezainaren truke. 627 34 76 24.

806. GALDU

Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen maiatzaren 22an, Garagartzatik Arrasaterako bidean. Marroiak dira. 618 02 81 33.

Urrezko eskumuturrekoa galdu dut Bergara erdialdean. Zodiakoaren zeinua zintzilik dauka. 943 76 38 70.

Urrezko eskumuturrekoa galdu dut Oñatiko Berezano auzoan. Aurkitzen duenak mesedez deitu. 943 76 24 79.

807. AURKITU

Urrezko ezkontza-eraztuna aurkitu dut. Gizonezkoarena. Eskoriatzako ikastola aurrean. 943 71 54 59.

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

INFORMAZIOA:
Makina Erremintaren Institutua
Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 74 41 32 - 74 82 65
Faxa: 943 74 41 53
e-posta: amaia@imh.es
www.imh.es

Eusko Jaurlaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.

AENOR ER Enpresa Erregistratua ER-0633/1998
IQNet ES-0633-1998
Euskadi

2005-2006 ikasturtea
HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)
• Proiektu mekanikoen garapena
• Mekanizazio bidezko produkzioa
• Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)
• Mekanizazioa
• Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektro-mekanikoa

ATE IREKIAK
ekainaren 2an, 18:00etan

Izena emateko epea: ekainaren 1etik 8ra, biak barne

AIPAGARRI

Juan Jose Alvarez
ZUMAIA

Realeko zuzendaritzarako hauteskundeak egingo dituzte aurki. Denon Erreala hautagai zerrenda ere aurkeztu dute eta Bergarako UNEDeko zuzendari Juan Jose Alvarez zerrenda honen bultzatzaileetako bat da. Erakundeekiko harremanean eta lege kontuan emango dio Alvarezek laguntza taldeari.

J.A. Untzurruntzaga
BERGARA

Juan Antonio Untzurruntzaga bergararrak lehen saria lortu du San Prudentzio Argazki Lehiaketan. Gasteizko lehiaketa Estatu mailakoa da eta 900 argazki inguru jaso dituzte aurten. Untzurruntzagaren *Paseando por la playa* argazkia da saritutakoa. 600 euro eta diploma eskuratu ditu.

Xabi Igoa
ARAMAIO



Arabako Eskolarteko Bertso Txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan Armentian. 14 urte artekoetan Aramaioko gazteak fin ibili ziren finalean: Xabi Igoa izan zen lehenengo eta bigarrena Mikel Serrato. Iker Agirre ere finalean izan zen 14 urtetik 18 urtera bitartekoen mailan.



Amaia Igartua bergararra eta **Jose Luis Blanco** gatzagarra bihar, maiatzaren 28an, ezkonduko dira, Gatzagan, Dorletako elizan. Ondoren Eskandinaviara joango dira ezkon bidaian. Zorionak, bikote, lankideen partetik.



Enea Elortza eta **Mikel Orobengoa** aretxabaletarrak zapatuan, maiatzaren 28an, ezkonduko dira. Honek ez dizue ematen *V*-k baino ikara handiagoa? Zorionak, bikote, lagunen partetik.



Txomin Ezkurra Koruetakoa eta **Petra Jausoro** Mendiolakoa 1955eko maiatzaren 28an ezkondu ziren, Mendiolan, Eskoriatzan.Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak, etxekoen partetik!

Agurtzane Leibar eta **Aitor Katarain** oñatiarrak maiatzaren 21ean ezkondu ziren, Berezaoko Santa Lutzi ermitan. Ondoren, Zelai Zabal jatetxean egin zuten ospakizuna. Orain eztei bidaian izango dira, Txinan. Ondo ibili, bikote!



Arrasateko **Aitor** eta **Monika** zapatuan, maiatzaren 28an, ezkonduko dira, Arantzazun. Ondoren, Soraluze jatetxean bazkaria egingo dute. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiakoen eta lagunen partetik. Ondo pasa eguna!

Sergio Azkarate eta **Saioa Ojanguren** arrasatearrak apirilaren 16an ezkondu ziren, Arrasateko udaletxean. Eztei bidaian Ameriketako Estatu Batuetan eta Dominikar Errepublikan egon dira. Gurasoen partetik, zorionak!

HILDAKOAK

Beatriz Lazkano Jauregi. Bergaran, maiatzaren 9an. 74 urte.
Juan Bengoa Urzelai. Arrasaten, maiatzaren 18an. 85 urte.
Candelaria Mazmela Zilaurren. Aramaion, 19an. 80 urte.
Roman Zabaleta Olabarria. Bergaran, maiatzaren 20an. 83 urte.
Manuel Martinez Plaza. Oñatin, maiatzaren 21ean. 74 urte.
Josefa Arratibel Imaz. Arrasaten, maiatzaren 21ean. 75 urte.
Juan Navajo De Frutos. Arrasaten, maiatzaren 22an. 55 urte.
Paula Ugalde Olañeta. Elgetan,maiatzaren 24an. 83 urte.
Margarita Gorrotxategi Egizabal. Aretxabaletan, 24an. 99 urte.
Bernardo Iñarra Orueta. Bergaran, maiatzaren 25ean. 88 urte.

URTEURRENA

Felipe
Badiola Lete

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 29an, 12:00ean, Elosuko San Andres elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Roman
Zabaleta Olabarria
Maria Luisa Irazabalbeitiaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 20an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko maiatzaren 27an.

ESKER ONA

Sally Elder

Ogoño mendian, Lagan, hil zen istripuz 2004ko maiatzaren 26an.

Urtebete honetan hainbeste lagundu diguzuen guztioi, eskerrik asko familiakoen izenean.

Bergaran, 2005eko maiatzaren 27an.

ESKELA

Lucas
Igartua Igartua

Oñatin hil zen, 2005eko maiatzaren 18an, 77 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Zure bost bilobak: Amaia eta Elene Arriaran, Haizea eta Maddi Igartua eta Jon Kortabarria.
Oñatin, 2005eko maiatzaren 27an.

MEZA

Maria
Aramendia Gaintza
Jesus Barandallaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 3an, 93 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, maiatzaren 29an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 28 / Max.: 26º / Min.: 14º/

Zerua oskarbi egongo da goizean. Egunak aurrera egin ahala, hodeiak ugaritu eta, arratsalderako, zerua hodeitsu izango da. Zaparrada arinak eta trumoitsuak izan daitezke. Iparraldeko haize ahula ibiliko da eta tenperaturak zertxobait behera egingo du.

DOMEKA, 29 / Max.: 21º / Min.: 12º/

Zerua hodeitsu agertuko da goizeko lehenengo orduan. Ondorioz, goizean euri arina egingo du eta arratsaldean zaparrada ertainak izango dira. Haize ahula eta aldakorra ibiliko da. Tenperatura maximoa moderatuki jaitsi eta minimoa gutxi jaitsiko da.

BEROTEGI EFEKTUA

Berotegi efektuaren ondorioak

Klimatologia aldatuz doa. Aldaketa horietako bat berotegi efektuak sortutakoa dela diote adituek. Horrenbestez, jakin dezagun zer den berotegi efektua.

Eguzki-erradiazioaren eta leku itxi baten artean beira bat jarrita eragiten den efektua da berotegi efektua. Beirak uhin laburreko erradiazio ikusgarria arazorik gabe uzten du igarotzen, baina aldiz, erradiazio hori hartzen duen lekuko tenperatura igo eta uhinak igortzen dituenean, islatu egiten du, infragorriaren eremuan igortzen baitu. Horrela, bada, eguzkiaren berotasuna eremu hartzailearen eta beirazko hormen artean harrapatuta gelditzen da.

Estrategia hori mendetan zehar erabili dute lorezaintzan. Landareendako horren klima aproposak ez direnetan errazago gara daitezen.Hala ere, berotegi efektuak kalteak ere eragiten ditu. Tartean lurreko tenperatura igoaraztea. Adituek diote giza ekintzek atmosferan dagoen karbono oxidozko kantitatea handiagotuz dihardutelako sortu dela egun berotegi efektuari buruz dagoen kezka.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



Lelotu / Intsektu mota			*Deitura / Eginkizun			Trikitian, adore emateko
		*Izena / Salatari				
Eguna / Lastima, atsekabe		Gizona emaztearekiko / Masusta				
				Selenioaren ikurra / Elektroia		
Araldea, jendaldea / Janaririk ez hartzea						Ideia hutsari dagokiona (pluralean)
				Litioaren ikurra / ... egin, topatu		
Ikus-nahi handiko	Utikan! / Gauzaez, gaiez		Daukat (ald) / Goiburu			
Azkena eta lehena / Merkurioa		Mugatutako denbora / Jardun				
	Arrantza-tresna / Radonaren ikurra				50 / 3,1416	
Karraska, lima / Haur txiki						
			Ohitura inkon-tziente			

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Laser bidezko behin betiko depilazioa

Laser bidezko depilazioak denbora luzea eskatzen du (teorian pare bat urte pasatu behar dira behin betikoa dela esateko), baina gaur egun egiaztatuta dago saio batzuen ondoren ilea indar txikiagoarekin hazten dela eta ilerik gabeko tarteak ere agertzen direla; eta horiek, saio gehiago egin ahala, neurriz handitzen dira (gutxienez %90-95) ilerik gabe gelditu arte.

Noiz has dezaket laser bidezko depilazio tratamendua? Kasu bakoitza aztertu behar da (sekula ez daude bi kasu berdin), gorputzeko zona bakoitza ezberdina da-eta... baita kasu bakoitzean erabili beharreko laserra, pertsonak dituen beharrak, azal mota: sendoa, sentikorra, erreaktiboa. Zein fototipo talderen barruan dagoen, medikamenturen bat hartzen duen eta azkenik tratamenduak agintzen duena betetzea: egunero babes osoa ematen duen krema hidratatzaile bat erabiliz, saio bakoitzaren aurretik eta ostean. Erabiltzen den laserraren arabera, saio bakoitza baino 10 edo 20 egun lehenago eta geroago eguzkirik ez hartzea. Kontuz ibiliz gero, edozein momentutan has daiteke tratamenduarekin.

Marisabel Hurtado
Dermatizista

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

TELEBISTAKO LEHIAKETA

Telebistetan ikusi ahal diren kultura orokorreko galderei buruzko lehiaketa horietako batean gertatua.
Lehiakidea gazte txima luze eta hippie samar bat da. Aurkezleak galdera irakurri dio:

– Nor izan zen munduari bira lehenengo aldiz eman zion marinela? Honako hauek dira aukerak:

a) Jesukristo.
b) Homero.
c) Sebastian Elkano.
d) Albert Einstein.

Aukerak entzun eta lehiakideak:

– Errepikatuko al dizkidazu aukerak?

– Jesukristo, Homero, Sebastian Elkano ala Albert Einstein?

– Telefono deia erabil dezaket?

– Bai, noski. Azkarregi ez ote duzun erabili behar esango nizuke, baina zuk agintzen duzu. Nori deitu behar diot?

– Kalparras-i.

Aurkezleak deia egin, Kalparras-ek erantzun eta:

– Hona hemen zure deia. Minutua duzu erantzun egokia aukeratzeko.

Eta lehiakideak:

– Kalparras, joan hadi talego koxkor bat erostera, gutxienez 25.000 pezeta irabazi dizkiagu eta!

JO ETA SU

Bikote arteko harremanei buruzko hitzaldi batera joan da Gorka. Hizlaria, gaiaren inguruko hainbat alderdi jorratu eta gero, edariei buruz hasi da hizketan:

– Bikote arteko arazo askoren iturria alkohola da. Emazteak, sarri, senarrak gehiegi edaten duelako uzten du.

Eta orduan Gorkak:

– Eta zenbat edan behar da hori gerta dadin?

SOLUZIOAK

N	I	N	I	●	T	I	K
●	A	R	R	A	S	P	A
H	G	●	A	M	U	●	L
●	Z	A	●	E	P	E	A
B	E	G	I	L	U	Z	E
●	●	U	T	●	T	U	D
B	A	R	A	U	●	L	I
●	T	A	L	D	E	A	●
T	A	M	A	L	●	S	E
●	D	●	S	E	N	A	R
I	R	A	G	●			
A	E	L	R	E			
●	B	●	E	●			

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

'Asteleheneko Goienkaria'-ko irakurleendako

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n, **bete kupoia** eta eskaria zeure etxean jasoko duzu, abantailekin:
%30eko beherapena eta oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK

35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

Harpidetu zaitez edo erosi Asteleheneko Goienkaria kioskoan eta...

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

044 zozketa: maiatzaren 23a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

EIBAR-MURCIA futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi)
- Luis Eraña (Bergara)
- Karlos Etxaniz (Bergara)
- Roque Iñarra (Antzuola)
- Jose Arbelaitz (Osintxu)
- Iñaki Altube (Oñati))
- Inma Basail (Bergara)

NAIROBITARRA mundua ezagutzeko jokoa
- Rosa Maria Aranzabal (Bergara)

ISTILU etxeko kamiseta bat
- Larraitz Trojaola (Arrasate)

045 zozketarako sariak



- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).
- **MOKOGORRI**, 6 urtetik gorakoendako puzzle bat.
- **ISTILU** etxeko mutilendako kamiseta bat.

‘Filma’

ZAPATUAN ETA DOMEKAN /* **ikus beheko taula**

‘Betizu izar artean’ filma ikusgai asteburuan

Kunean, inperioaren hiriburuan, Buff Alu bere izar berriak aukeratzeko lehiaketa prestatzen dabil. Musikaren bidez Buff Aluk galaxia osoa kontrolatzen du. Kontrola erabatekoa da. Tartean Betizu eta bere lagunak daude.

‘Derbia’

ZAPATUAN ETA DOMEKAN /* **ikus beheko taula**

Derbia, Bergararen azken partidua preferente mailan

Umore desberdinez jokatuko dute Ligako azken partidua Bergarak eta UDAk. Mahoneroek maila galdu dute, eta datorren urtean erregionalean ariko dira. UDA, berriz, salbu da. Agurrean, ordea, biek nahiko dute irabazi.



‘Zegama-Aizkorri’

ASTELEHENA 30/ **21:30 eta 23:00**

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren laburpena

Asteburuan, Aizkorri aldean aurkituko dugu irudi ikusgarririk; domekan, Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren IV. lasterketa jokatuko da. 350 lagunek hartuko dute parte Munduko Mendi Lasterketen Koparako puntuagarria den proban.

‘Iparraldea Oñatin’

MARTITZENA 31 / **21:00 eta 22:30**

Iparraldea eta Hegoaldea bat eginda Oñatin

Laixan euskara elkarteak egitarau betea antolatu du Iparraldea Oñatin izenburupean, Ipar Euskal Herria Hegoaldera hurbiltzeko. Goiena Telebistak jarraipena egingo die antolatutakoei, bildutako irudiak saio berezian emanda.

TELEBERRIAK

Hego Korean egiten dute ‘Simpsondarrak’ telesaila

Marrazki bizidunen *Simpsondarrak* telesail ospetsua Hego Korean egiten dute, nahiz eta saioaren jabeak Ameriketako Estatu Batuetakoak izan eta gidoiak ere hantxe sortu. Hego Korean marrazkiak egiten dituzte, behin *storyboard* edo marrazkien zirriborroak eta soinua jasota. Hain justu ere, 120 marrazkigilez osatutako taldeak egiten du 22 minutuko kapitulu bakoitza; hiru hilabete behar dituzte kapitulu bat oso-osorik egiteko. Mundu globalizatuaren ondorioak dira; izan ere, Hego Korean maila handiko marrazki egileak daude, baina han mendebaldeko herri garatuetan baino hiru aldiz soldata txikiagoa kobratzen du ilustratzaile batek.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 27	ZAPATUA 28	DOMEKA 29	ASTELEHENA 30	MARTITZENA 31	EGUAZTENA 1	EGUENA 2
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Chiloé** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean:** Jokin Etxaniz 21:30 **Eguzki lore:** Juan Lobo Torralbako 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Baneki** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:15 **Baneki** 13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:00 **Ilunpean** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Filma:** Betizu izar artean 16:05 **Eguzki lore** 15:35 **Jaun ta jabe** 17:05 **Klip@** 17:20 **Behazulo** 17:50 **Debarri:** Aretxabaleta 18:55 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla eta Lazkao Txiki 20:30 **Chiloé** 20:45 **Klip@** 21:00 **Derbia** Bergara-UDA 22:30 **Emisio amaiera**	11:05 **Filma:** Betizu izar artean 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:50 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Derbia:** Bergara-UDA 14:40 **Eguzki lore** 15:10 **Filma** 16:15 **Chiloé** 16:45 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 17:50 **Klip@** 18:05 **Baneki** 18:35 **Jaun ta jabe** 19:05 **Ilunpean:** Jokin Etxaniz 19:35 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 20:20 **Baneki** 20:50 **Debarri:** Aretxabaleta 22:00 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ilunpean** 15:00 **Eguzki lore** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Baneki** 21:30 **Zegama-Aizkorri mendi maratoia** 22:00 **Berriak** 22:30 **Derbiaren laburpena** 23:00 **Zegama-Aizkorri mendi maratoia** 23:30 **Gaurkoak**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Harmailatik** 15:00 **Derbiaren laburpena** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Iparraldea Oñatin** 21:30 **Jaiak 2005:** Gorpuzti Eguna 21:45 **Klip@** 22:00 **Berriak** 22:30 **Iparraldea Oñatin** 23:00 **Jaiak 2005** 23:15 **Gaurkoak**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Iparraldea Oñatin** 15:00 **Jaiak 2005:** Gorpuzti Eguna 15:15 **Berriak Aurrerapena** 15:30 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Chiloé** Malaysia 21:30 **Jaun ta jabe** 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:00 **Jaun ta jabe** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Jaun ta jabe** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Iparraldea Oñatin** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:30 **Eguzki lore**	21:00 **Derbia**	15:10 **Filma**	21:30 **Zegama-Aizkorri**	21:00 **Iparraldea Oñatin**	21:30 **Chiloé**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

BERGARA-UDA

Bergararren eta aretxabaletarren arteko derbia Goiena Telebistan.

Zapatuan, maiatzaren 28an
Agorrosin futbol zelaian, 16:30ean
21:00etan Goitb-n

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

BERGARA - UDA
Laguntzaileak :
Pol Pol, Ezkutu, Haizea eta Ibarra jatetxea

Lan egiteko benetako aukera

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

aurrematrikula zaitez

ekainaren 1etik 8ra

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

— Erizaintzarako Laguntza Osagarriak
— Arreta Soziosanitarioa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

— Ingurumen Kimika
— Analisia eta Kontrola
— Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
— Obren eta Planen Burutzapena
— Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

Informa zaitez!
902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

EUSKAL OKELA — CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO — BAIMENDUTAKO HARATEGIA — EUSKO LABEL — KALITATEA

ANTZUOLA
- Gabilondo Arregi harategia (A) Kalebarren 14

ARAMAIO
- Bixente L. Azpilikueta harategia (A) Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE
- Landaluze harategia (A) Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B) Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A) Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A) Erguin 12
- Kortaberri harategia (A) Antxo Abarka 1

BERGARA
- Andres Mujika harategia (A) Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A) Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B) Espoloia 12

ESKORIATZA
- Zubia harategia (B) Santa Ana 11

OÑATI
- Antxon harategia (A) San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B) Portu 2
- Garai harategia (A) Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B) Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2005eko maiatzaren 27a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Jon Agirre/ Arrantzalea

Zorionak! Zortea izan zenuen domekako arrantza txapelketan ala benetan zara arrantzale ona? Eskerrik asko. Berandu iritsi nintzen txapelketara. Ezagutzen nuen toki batera joan nintzen, baina jende asko zegoen, eta errekan gora abiatu nintzen.

Zortzi amuarrain harrapatu zenituen. Bazeuden horrenbeste?

Gazteok Arantzazu errekako zati batean egin behar genuen arrantza eta nagusiek beste batean. Gure aldean amuarrainak askatu zituzten.

Dena dela, amuarrain gutxi daude. Duela urte batzuk San Martingo zubian ere arrantzatzen genituen amuarrainak, baina gaur egun ez daude.

Jan dituzue domekan harrapatutakoak?

Bai, batzuk urdaiazpikoarekin eta beste batzuk, berriz, piperrekin.

Joan den urtean egindako txapelketa ere zeuk irabazi zenuen, ezta?

Bai, joan den urtekoan lau harrapatu nituen.

Beti joaten zara toki berera?

Oñatin bertan egiten dut arrantzan normalean, eta gora eta behera ibiltzen naiz kanaberarekin hemengo erreketan.

Zizareak erabiltzen dituzu amu bezala?

Ez, ez naiz zizareekin ibiltzen, koilaratxoekin egiten dut arrantzan.

Ze ekipamendu eramaten duzu soinean?

Gerrirainoko gomazko botak, txalekoa eta kanabera. Txalekoaren poltsikoetan eramaten ditut koilaratxoak, harrapatutako amuarrainak edo ogitartekoa.

Eta zenbat aldiz erori zara errekara?

Behin ere ez, askotan egin dut labain, baina ez naiz inoiz erori orain arte.

Kanabera bat baino gehiago dituzu?

Orain bost ditut. Lau nituen eta domekan eman zidaten bosgarrena, arrantza txapelketa irabaztearren.

Beti bueltatzen zara amuarrainekin etxera?

Bai, zera! Domekan zortzi arrantzatu nituen, astelehenean bat, baina beste batzuetan bat ere ez.

Esku-hutsik bueltatzean izaten duzu gogorik berriro joateko?

Ez handirik, baina ahal badut, beti joaten naiz.

Noiz hasi zinen arrantza egiten?

Txikitan, baina azken lau urte hauetan egin dut arrantzan batez ere.

Eta nola konpontzen zara ikasketak eta arrantza batera egiteko?

Orain arte nahiko ondo, baina laster hasiko gara azterketekin, eta hemendik aurrera zailagoa izango da.

Nola konbentzi dezakezu kontrakoaz arrantza aspergarria dela uste duen pertsona bat?

Aspergarria ez dela esaten. Arrantzan egiteko era asko daude, eta gustukoena bilatuz gero, ez da batere aspergarria.

Garbi daude errekak?

Arantzazu erreka, bai. Ur gutxi dute, dena dela.

"Urdaiazpikoarekin eta piperrekin jan genituen domekako zortzi amuarrainak"

"Berandu iritsi nintzen txapelketara, ezagutzen nuen tokian jende asko zegoen eta errekan gora joan nintzen, bakarrik"

"Laster azterketak ditugu, eta zailagoa izango da arrantza eta ikasi, biak, egitea"

► *Oñati/ 15 urte / Arrantza txapelketako irabazlea*

PIPERRAUTSA

Ardatzak

Inauguratu dute Ormaiztegitik Zumarragarako errepidea, Beasain-Durango ardatzaren zatia. Eta niri zauria berritu egin zait, errepide honekin gertatzen ari dena ikusita.

Aspaldiko errepide plangintzetan jotzen zen lehentasunezko errepidez lotzea Gipuzkoa eta Bizkaia barnealdetik. Errepide berriak lotuko zituen bi ardatz nagusi, Donostia-Beasain eta Durango-Bilbo, saihestuz Deskarga, Elgeta eta Kanpanzarko zailtasunak, eta irekiko zizkion Debagoienari Gipuzkoako eta Bizkaiko ateak.

Lanak hasi, hasi ziren: Beasaindik Ormaiztegira, Epeleko zatia, Elorrioko saihesbidea… Baina berehala etorri ziren atzerapenak. Lehian sartu ziren Etxegaratekoko lau erreiak eta, iskanbila askoren bueltan, obra biak batera bultzatzeko konpromisoa hartu zuen Aldundiak. Etxegaratekoa amaituta, handik urtebetera eta neke handiz iritsi da beste lana Zumarragaraino, lehen aurreikuspenak baino bost bat urte geroago. Eta beste bost bat urte beharko omen ditu Zumarragatik Bergarara iristeko.

Konparatu geldotasun hau Eibar-Gasteiz autobideko lanen ziztu biziarekin, eta argi ikusiko duzue non jarri duten agintariek lehentasuna. EAE egituratzeko garrantzi handiagoa duelako autobideak, Beasain-Durangok baino? Ala autobideak ordainsaria duelako, eta besteak ez?

Bide batez, Bizkai aldean eperik ere ez dago Durango-Epele zatia egiteko.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Babes eta erosotasun handiagoa

Kanporako saretak

Dekorazio aukera guztiak

Estoreak, errezelak eta saretak

Eguzki babesa

Toldoak

VELUX®

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51